

Gizarte langintza eta animalien laguntzarekin egindako interbentzioak

2017/2018

Gizarte langintzako Gradu Amaierako Lan honen bitartez gizarte langintzaren eta animalien laguntzarekin egindako interbentzioen arteko harremana aztertu nahi izan da.

Gizarte
langintzako
Gradu
Amaierako
Lana

Lanaren zuzendaria: Mikel Torres Aldave

Lanaren egilea: Oihane Armendariz Soriano

Lanaren defentsa data: 2018ko uztaila

**Euskal Herriko Unibertsitate Publikoa – Lan Harreman eta Gizarte
Langintzako fakultatea**

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ESKERRAK

Ataltxo honen bidez lana burutzea posible egin duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiet. Hasteko, nire tutorea izan den Mikel Torresi mila esker lana behin eta berriz zuzentzeagatik, bideratzeagatik eta aholkuak emateagatik. Lana garatutako urte honetan zehar bere laguntza beharrezkoa izan da baita bere animoak ere. Berarekin oso gustura lan egin dut eta eskertzekoa da.

Honekin batera, nire lanaren helburua posible egitea edo gutxienez saiatzea ahalbidetu duten elkarteei aipamena egitea beharrezkoa egiten zait: Gure Sustraiak, Psicoanimal eta Biak Bat. Modu eskuzabal eta desinteresatu batean, elkarrizketak burutzeko bere denboraren tartetxo bat eskaini didate. Horregatik, eskainitako laguntza eskertu nahi dizkiet.

Aipamen berezia nire familiari lau urte hauetan zehar ikasteko aukera eman didatelako. Beraiekin pasatutako atsedeen momentuak lanarekin aurrera jarraitzeko beharrezkoak izan dira. Honekin batera, nire kontzentrazioa ahalik eta handiena izateko ahalbidetu duten isiltasuna eta giro egokia eskertu nahi dizkiet.

Bukatzeko, Gradu Amaierako Lana egiten ari diren lagun guztiei eskerrak eman nahi dizkiet. Partekaturiko keak, zalantzak, frustrazioak, estresa ... bata besteari laguntzeko aukera eman digute edo behintzat, ni bezalako egoerak eta sentimenduak bizitzen ari zirela jakin izan dut. Nahiz eta esapide zaharrak dioena "askoren mina tontoen atsegina" egia izan; momentu batzuetan lana egiten ari ziren lagunen estres egoeren berri izateak lasaitu nau. Baina batez ere eskerrik asko gomendioengatik eta lanak bukatu eta ondorengo ospakizunengatik.

LABURPENA

Gizarte langintzako Gradu Amaierako Lan honen bitartez, gizarte langintzako profesioan animalien laguntzarekin egindako interbentzioak izan dezaketen garapena eta funtzioak aztertu nahi izan da. Horretarako, pertsonen eta etxekotutako animalien arteko harremana ikertu egin da eta honek sorturiko onura sozialak, psikologikoak eta fisikoak, baita mugak eta zailtasunak, ere aztertu dira. Honekin batera, gizarte langileak interbentzio mota hauetan izan dezakeen papera eta garatu ditzakeen funtzio desberdinak zehaztu nahi izan dira.

Hitz gakoak: gizarte langintza, gizarte langilea, animalien laguntzarekin egindako interbentzioak, animaliak, onura sozialak, fisikoak eta psikologikoak.

ABSTRACT

This Social Work Graduate Final Project wants to examine what kind of relations between Social Work and Animal-assisted interventions could exist. With this aim, I have first studied the relationship between domestic animals and humans. Next, I have examined the social, physical and psychological benefits derived from Animal-assisted interventions, without overlooking the limits and difficulties of them. Finally, I have tried to specify the role and functions social workers could play in Animal-assisted interventions.

Keywords: social work, social worker, animal-assisted interventions, animals, social, physical and psychological benefits.

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	1
2. Hipotesiak eta helburuak	4
3. Metodologia.....	5
4. Marko teorikoa.....	7
4.1. Etxekotutako animalien eta pertsonen arteko harremana: historia eta bilakaera.....	7
4.1.1. Animalien eta pertsonen arteko lotura	9
4.1.2. Biofiliaren hipotesia eta animalien eragin onuragarriak gizakiengan	12
4.1.2.1. Onura fisikoak.....	13
4.1.2.2. Onura psikologikoak	14
4.1.2.3. Onura sozialak.....	16
4.2. Animalien laguntzarekin egindako esku-hartzeak	17
4.2.1. Animalien laguntzarekin egindako esku-hartzeen jatorria eta historia.....	18
4.2.1.1. Gaur egungo egoera.....	21
4.2.2. Animalien laguntzarekin egindako esku-hartzeen kontzeptualizazioa.....	23
4.2.2.1. Terapiak.....	24
4.2.2.2. Hezkuntza.....	24
4.2.2.3. Aktibitateak.....	24
4.2.3. Animalien laguntzarekin egindako interbentzioetan erabilitako animaliak	25
4.2.4. Animalien laguntzarekin egindako interbentzioak aplikatzeko eremu posibleak	26
4.2.4.1. Aniztasun funtzionala	27
4.2.4.2. Hezkuntza.....	28
4.2.4.3. Beste instituzio ezberdinetan egindako programak.....	28
4.2.5. Animalien laguntzarekin egindako interbentzioak burutzen dituzten profesional desberdinak	29
4.3. Gizarte langintza eta animalien laguntzarekin egindako interbentzioak	30
4.3.1. Gizarte langintzaren historia	30
4.3.2. Gizarte langintzaren maila desberdinak.....	31
4.3.3. Gizarte langintzaren esku-hartzeko eremu eta kolektibo desberdinak	32
4.3.4. Gizarte langintzaren eta animalien laguntzarekin egindako interbentzioen arteko harremana	33
5. Analisia	36

5.1. Animalien laguntzarekin egindako interbentzioen onurak.....	36
5.2. Gizarte langilearen papera	38
5.3. Teoria eta ikerketaren beharra	40
6. Ondorioak.....	43
7. Proposamenak	47
Bibliografia	50
Eranskinak.....	54

1. Sarrera

Gradu Amaierako Lan honen bitartez gizarte langintzaren eta animalien laguntzarekin egindako interbentzioen arteko harremanean sakondu nahi izan dut. Etorkizunean nire profesioa izango den gizarte langintzaren eta animalien laguntzaren arteko maitasunaren arteko batuketa burutzen saiatu naiz, gizarte langile moduan burutu ahal izango ditudan interbentzio sozialak finkatuz.

Animalien laguntzarekin egindako esku-hartzeak animalien eta pertsonaren, taldearen edo komunitatearen arteko harremanaren bitartez sorturiko onurak aprobetxatzen dituen esku-hartze mota da. Animalien eta pertsonen arteko harremanak sortzen dituzten onura sozialak, psikologikoak eta fisikoak interbentzioan zehazturiko helburuak lortzeko ustiatzen dira. Animalia interbentzioa burutzen ari den profesionalaren laguntzailea bihurtzen da esku-hartzea erraztuz.

Pertsonen eta animalien arteko harremana betikoa izanda ere, animalien laguntzarekin egindako esku-hartzeak solidotzen dituzten ikerketa enpirikoak eta honekin batera garatutako teoriak zorroztea, gaur egun oraindik dagoen erronka da. Animalien eta gizakion arteko harremana, lotura honetatik eratorri egiten diren onurak eta hauen aplikazioa gizakion terapietan eta beste interbentzioetan, hainbat erakundeek egindako ikerketen objektuak dira, hala nola, PetPartners erakundearen edota IAHAIO erakunde internazionalaren kasuan. Baina praktika teorizatzeko garaian ikerketa enpirikoen falta sumatu egiten da baita termino edo kontzeptuen zehaztapenen teorikoan ere.

Hala ere, gaur egun animalien laguntzarekin egindako interbentzioek profesioen interesa pizten ari dute eta zabalkuntza, garapen eta kontsolidazio prozesuan daude. Profesional desberdinen interbentzio mota bilakatzen ari da, hala nola, medikuen, fisioterapeuten edo psikologoaren kasuan. Honen adibide daukagu San Joan de Déu Bartzelonako ospitalean dauden txakur laguntzaileak, esaterako¹. Eremu desberdinetako profesionalek garatutako animalien

¹ <https://www.sjdhospitalbarcelona.org/es/intervenciones-asistida-con-animales> (2018/06/18an ikusita)

laguntzarekin egindako interbentzioen aplikazio profesionala gero eta handiagoa da (Yagüe, 2017, 17. or.).

Honekin batera, 2017. urtean Espainia Europak animalien ongizatearen inguruan argitaraturiko hitzarmenari atxikitu zen. Hitzarmena 1987. urtean Strasburgon onartua izan zen eta maskoten babes, erreprodukzioa, salerosketa eta animalien ongizatea sustatzen duten beste hainbat gai buruzkoa da. Nahiz eta Espainiak hitzarmena nahiko berandu onartu, estatu mailan animalien inguruko babesari garrantzia eta indarra ematen dion legea da. Hala ere, komunitate autonomo bakoitzean animalien babesaren inguruko legeak desberdinak dira eta hortaz, erkidegoaren arabera animalien laguntzarekin egindako interbentzioen marko juridikoa aldatu daiteke.

Testuingurua kontuan izanda baita gizarte langintzak pertsonen, taldeen edo komunitateen eremu sozialean lan egiten duela ere, animalien laguntzarekin egindako interbentzioak gizarte langintzako esku-hartzeko eredu berria izan daiteke. Etxekotutako animalien eta gizakion arteko interakzioak sortzen dituzten onurak aprobetxatuz, gizarte languntzarekin profesiotik lortu nahi den pertsonaren, taldearen edo komunitatearen ongizatea sustatu daiteke. Laburbilduz, animaliekin izandako interakzioak esku-hartze sozialetan aplikatzeak eta ustiatzeak aukera berriak ireki ditzake gizarte langintzarentzat.

Gizarte langintzaren eta animalien laguntzarekin egindako interbentzioen arteko zubia edota harremana definitzeko esku-hartze mota hauetan lan egiten duten hiru elkarte desberdinen elkarrizketen laguntza izan dut. Batetik, Altsasun kokaturiko Biak Bat elkarteko psikologoari eta animalien hezitzaileari eginiko elkarrizketa. Irabazi asmorik gabeko elkarte honen helburua animalien laguntzarekin egindako interbentzioen eta asistentziako txakurren bitartez pertsonen bizi kalitatearen hobekuntza da. Horretarako osasun zientzietan, aniztasun funtzionalean eta gizarte bazterketaren inguruan adituak diren arlo desberdinetako profesionalak lan egiten dute animalien entrenatzaileekin eta animaliekin batera. Alde batetik, programa desberdinen bitartez behar espezifikoak erantzuten saiatzen dira, hala nola, aniztasun funtzionala, adinduak, genero indarkeriaren biktimak izan diren umeak etab. Bestetik, hezkuntza arloan sentsibilizazioan eta formakuntzan jarduten dira.

Bestetik, Gure Sustraiak gizarte ekimeneko kooperatibaren gizarte langileari egindako elkarrizketa. Irabazi asmorik gabeko elkarte honen helburua ingurumen jasangarritasunaren printzipioak sustatzea eta hedatzea da pertsona orori zuzenduta dauden zerbitzu inklusiboak eskainiz. Ingurumen eremuko eta arlo sozialeko profesional desberdinek lan egiten dute. Ingurumen hezkuntzaren, turismoaren eta aisialdi terapeutikoaren inguruko aktibitateak garatzen dituzte ekonomia sozialean eta elkartasunean oinarrituz. Aisialdi terapeutikoak barnebiltzen dituen zerbitzuen artean, animalien laguntzarekin egindako interbentzioak garatzen dituzte, hala nola, astoekin egindako terapiak. Honekin batera formakuntzan lan egiten dute kurtsoak eta sentsibilizazio kanpainak burutuz.

Azkenik, Madrilen kokaturiko Psicoanimal elkartearen psikologa elkarrizketatu nuen. Elkarte osasun eta gizarte eremuan kokaturiko profesional desberdinek eta animaliek osatzen dute eta animalien eta gizakien ongizatearen bitartez zerbitzu teraupetikoak eskaintzen dituzte. Aipagarria da erakunde honetan lan egindako profesionalen artean bi gizarte langile izatea; guztira zazpi profesional direla kontuan hartuta gizarte langileen kopurua nahiko altua delako.

Hiru elkarte desberdinei egindako elkarrizketen eta bigarren mailako informazioaren bitartez, gizarte langintzaren eta animaliekin egindako esku-hartzeen arteko harremana burutzen saiatu naiz; gizarte langintzak esku-hartze berri hauetan izan dezakeen papera eta funtzioak zehazten, alegia.

2. Hipotesiak eta helburuak

Lan honen bitartez animalien laguntzarekin egindako interbentzioek gizarte langintzarekin izan dezaketen lan harremana finkatu nahi da. Horretarako, interbentzio mota hauek gizarte langintzaren esparrutik izan dezaketen funtzioa aztertuko da. Honekin batera, gizarte langileak animalien laguntzarekin egindako esku-hartzeetan izandako papera edo rola ikertuko da.

Horretarako, ikerketa gidatuko duten hainbat helburu izendatuko dira berretsiak edo ezeztatuak izango diren hipotesiekin batera. Honako hauek dira lanaren helburu orokorrak:

- Gizarte langileek animalien laguntzarekin egindako interbentzioetan jokatu dezaketen papera aztertzea.
- Animalien laguntzarekin egindako interbentzioek arazo sozialei aurre egiteko jokatu dezaketen papera aztertzea.

Lanaren helburu zehatzei dagokionez, honako hauek dira:

- Animalien laguntzarekin egindako arazo sozialen interbentzioak aztertzea.
- Gizarte langintzaren objektu diren kolektiboetan animalien laguntzarekin egindako interbentzioen eragina aztertzea.
- Gizarte langileek interbentzio hauen arloan bete ditzaketen funtzioak aztertzea.

Hipotesiei dagokionez, helburuetan oinarrituta lanak garaturiko ikerketa prozesua bideratuko dute. Honako hauek zehaztu dira:

1. Hipotesia: animalien laguntzarekin egindako interbentzioak onuragarriak eta baliagarriak dira arazo sozialei aurre egiteko.
2. Hipotesia: gizarte langilearen papera interbentzio mota hauetan garatu daiteke.
3. Hipotesia: interbentzio mota hauek gizarte langileak zehaztutako helburua lortzeko bidea izan daitezke.

3. Metodologia

Burututako ikerketa lana metodologia kualitatiboan oinarritzen da; Anguera-ren definizioaren arabera (Gorostiaga eta Balluerka, 2007, 191 or.-an aipatuta) gertakizunen, portaeren edo egoeren testuinguruaren deskribapen zorrotzean oinarritutako ikerketa-estrategian, alegia. Ikerketa ekarpen baliagarriez eta datu-sistematikoez osatuko da eta hauek aztertutako errealitatearen denbora errespetatuko dute; hau da, datuak egungo testuingurura eta errealitatera egokitzen dira. Horretarako nire ikertzaile rola parte-hartzailea eta aktiboa izan da.

Ikerkuntza kualitatiboan oinarritutako lana burutzeko hainbat teknika desberdin erabili dira. Hasteko, dokumentuen azterketaren estrategia burutu da. Horretarako, ikerketaren helburuei eta hipotesiei buruzko informazioa irakurri eta interpretatu da. Ikerlanerako lehendik sortuta zeuden dokumentuen errebisio bibliografikoa egin da, idatzizkoak eta ikus-entzunezkoak izan direnak (artxiboak, aldizkarietako artikuluak, datu-baseak, elkarten bideoak, etab.)

Ikerketa dokumentuetan oinarritzeaz aparte, hiru elkarte desberdinei burututako elkarrizketetan ere oinarritzen da. Psicoanimal elkartearen egoitza Madrilen kokatuta dagoela kontuan harturik, elkarrizketa telefonoz egin da. Hala ere, oso interesgarria izan da animalien laguntzarekin egindako esku-hartzeak egiten dituzten erakundeetan gizarte langilearen presentzia eskasa delako eta kasu honetan, bi gizarte langileek lan egiten dutelako.

Biak Bat elkartearen kasuan, talde triangeluarraren teknika erabili da; “eztabaida-taldearen eta elkarrizketa sakonaren artean dagoen teknika, hiru parte-hartzaileen eta koordinatzailearen arteko bilera” (Gorostiaga eta Balluerka, 2007, 203. or.). Taldea osatzen genuen pertsonen kopurua oso txikia zenez, elkarrizketatuen parte-hartzea bermatzeko egokia izan zen. Gainera, talde-egoerak eraginda, partaideen erantzunak edo parte-hartzeak beste taldekideen partaidetzaren ondorio izan ziren eta honela informazio asko eskuratu zen.

Hirugarren entitatea Gure Sustraiak izeneko baserri eskola izan zen. Kasu honetan, elkarrizketaren galderak posta elektronikoaren bidez pasatu dira.

Hortaz, dokumentu hauetan elkarrizketak duen bat-batekotasuna eta ez-hitzeko komunikazioa galdu da. Hala ere, korreoz erantzundako galderen erantzunak estruktura eta informazio trinkoagoa daukate.

Elkarrizketak galdera ireki eta itxiez osatuta zeuden (2. eranskina); elkarrizketatuak ziren pertsonak luze eta zabal hitz egiteko aukera izateko gai nagusiaren ildoak galdu gabe. Galdera itxiak oinarrizko informazioa lortzeko erabili dira (elkarrizketatuen profesioa edota urteak, esaterako) eta irekiak, aldiz, informazioa luze eta ahalik eta zehatzena eskuratzeko egin dira.

Elkarrizketen datuen tratamendua burutzeko kodifikazio eta kategorizazio prozesuak erabili dira; testuen elementuak konparatzeko eta analizatzeko aukera ematen duten testuen analisirako prozedurak (3. eta 4. eranskinak). Kodifikazioa Gorostiaga-k eta Balluerka-k (2007) zehazten duten moduan, hautemandako portaera zehatzei buruzko kontzeptuak lantzeko prozesua da, errepresentazio-mekanismoen bitartez egiten dena. Kategorizazioa, ordea, kodifikazioaren modalitate zehatza da, sinbolo edo kategoria multzo baten bitartez egiten dena (206 or.) Elkarrizketek duten informazio kopuru handia multzokatzeko eta haien arteko harremana eratu ahal izateko prozesu egokiak eta erabilgarriak izan dira. Honela, informazioaren estrukturazioa eta eskematizazioa egin da.

Ondoren, bigarren mailako informazioaren eta elkarrizketen bitartez baita eskuratutako informazioaren fusioa eginez ere analisia burutu da. Honen helburua interpretazio eta hausnarketa teorikoa egitea izan da, informazioaren analititik sortzen diren kontzeptuak eta ideiak landuz.

Aipatzekoa da analisia burutzeko izan dudana lagin mugatua hiru elkarrizketen kasuan. Hortaz, lehengo mailako informaziotik ateratako ondorioak eta hausnarketak mugatuak direla kontuan izan behar da.

4. Marko teorikoa

4.1. Etxekotutako animalien eta pertsonen arteko harremana: historia eta bilakaera

Giza espeziearen eboluzioan animalien eta gizakion arteko harremana² biziki presente egon da; kultura, erlijioa, literatura edo arte desberdinetako edozein garaiko istorioetan eta kondairetan ikusi ahal dugun moduan. Hala nola, gizakien eta txakurren arteko harremanaren hasiera Paleolitiko garaikoa dela frogatu da; otsoa etxekotzearen ondorioz duela 100.000 urte baino gehiago sorturikoa (Serrano, 2007).

Gizakiaren eta animalia-aren arteko harremanaren jatorrian dauden arrazoiak batera izandako existitzean, lehiakortasunean eta elikagaien bilketan oinarritzen dira; ehizarako eta elikagaien bilketarako erabiltzen baitzituzten gure arbasoek animaliak nagusiki. Ondoren, gizakiak elikagai propioak eskuratzeko izakien etxekotze prozesuari hasiera eman zion laborantza prozesuak garatuz (Burcher, 1996).

Animalia etxekotze prozesu honen ondorioz, gizakiaren eta animalia-aren arteko harremanean aldaketak sortu ziren. Hasiera batean, gizakiaren rola ehiztariarena izanik, helburua animalia hiltzea zen. Baina animalia etxekotzeko prozesuan, ordea, helburua ugalketa emateko eta etxekotze prozesua erraztuko duten ezaugarriez baliatzeko izakia bizirik mantentzea bilakatu zen (Savishinsky, 1993, 135-155).

Etxekotze prozesua garatuagoa zegoen kulturetan, animalien eta gizakien arteko harremana desberdina zen. Askotan, gizarte hauetako animaliak boterearen eta gizarte estatusaren sinboloak ziren. Etxekotutako animaliak eta animalia exotikoak tratu desberdina jasotzen hasia ziren eta honekin batera, hauek espazio konkretu edo berezietan kontserbatzeko nahia. Antzinako Grezian, Kobayashi-k (2011) azaltzen duen moduan, txakur hitzaren esanahiari hiru ideia atxikitzen zitzaizkion: haragikoa, segurtasuna eta adiskidetasuna. Haragikoiak lotsaren eta moralaren gabezia adierazten zuen. Segurtasunak bi

² Gizakia pertsonari edo giza espeziari egiten dio erreferentzia, beste animalietatik bereizitako espezia. Animaliak, ordea, giza espeziatik bereizitako beste izaki bizidunak dira.

esanahi zituen; hasieran txakurrei etxean, tenpluen erantzukizuna eta sendotasunaren ezaugarria esleitzen zieten. Geroago, beste istorio batzuk txakurraren segurtasunaren esanahia aldatu zuten. Hala nola, Soter-en istorioa, zeinek Corinton beste 49 txakurrekin batera Naupolioen inbasioa defendatu zuen. Azkenik, adiskidetasunak txakurrak jabeari transmititutako maitasunari eta leialtasunari egiten zion erreferentzia.

Animalien erabilgarritasunean oinarritutako antzinako ikuspegi honen aurrean sorturiko posizioak eta korrontek ugariak dira. Azken mendeetan zehar, harreman honetan gizakion rol menderatzailea salatu da animalien eskubideak defendatuz. Hauen maitasuna, laguntza eta zaintza islatzen dituzten aldarrikapenak ikusi ditzakegu. EEBB-tako Seattle nagusiak Estatu Batuetako Franklin Pierce presidenteari idatzi zion moduan (1855)³; “Gizaki txuriak animaliak bere anaiak bezala tratatu beharko ditu ... Zer izango zen gizakia animaliarik gabe? Pizti guztiak sarraskituak izango balira, gizakiak bakardadean hilko zen; animaliei gertatzen zaiena gizakiei gertatuko litzaioke. Dena harremanetan dago” (nire itzulpena). Gaur egun eskutitzaren jatorriari buruzko zalantzak daude, Seattle nagusiak garai horretako propioak ez ziren ekologismoaren inguruko printzipioak islatzen direlako. Hala ere, garaiko lurrak eta animaliak zaintzeko nahia zegoela jakin badakigu. Honekin batera, animaliak ohoratzen dituzten kasuak ere aurkitzen ditugu. Indian, adibidez, urtero txakurrei *Tihar* izeneko festa bat egiten diete ohoratzeko; janari gozoa prestatzen zaie eta buruan puntu gorri bat jartzen zaie hirugarren begi bat izango balitz bezala jakituria eta ezagutza irudikatzen duena (Pulgarin eta Absalon, 2016, 224. or.).

Gaur egun, animaliek duten erabilgarritasunean oinarritutako helburuak presente jarraitzen du; animaliak helburu anitzak eta desberdinak lortzeko bitartekoak izaten dira, hala nola, produktuen dastaketak egiteko, lan instrumentuak izateko, ikerketak burutzeko, ... Animalia eta gizakion arteko harremanaren ebaluaketa etikoa gaur egun pil-pilean dagoen eztabaida da. (Gutiérrez, Ganados eta Piar, 2007, 165. or.)

³<http://ciudadseva.com/texto/carta-del-jefe-seattle-al-presidente-de-los-estados-unidos/>
(2018/06/06-an begiratuta)

Gizakiaren eta animaliaen arteko harremana ez bezala, gizakien eta animalien interakzioak maila sozialean izan ditzakeen ondorioak zientifikoki frogatzeko eta azaltzeko azterketak jaioberriak dira. Gaur egun, mundu osoko ikerlariek arreta eta baliabide guztiak jartzen ari dituzte animalien eta pertsonen arteko harremana ulertzeko eta honen oinarriak, efektuak eta onurak zientifikoki frogatzeko. Bi izaki hauen arteko loturaren ondorioz sortutako onura fisikoak, psikologikoak eta sozialak frogatzen dituzten ikerketekin batera, interakzioa sortzen duten mekanismoen kontzeptualizazioa hasi da.

Honen adibide Friedmann-ek, Katcher-ek, Lynch-ek eta Thomas-ek (1980, 310-311. or.) animaliekin izandako harremanak eragindako onuren inguruan burututako hainbat ikerketa daude. Animalien eragina gaixotasun kronikoak dituzten pertsonen kasuei buruzko azterketan, maskota bat izateak⁴ eragindako laguntasuna eta afiliazio sozialak gaixotasunari aurre egiteko erraztasunak nabarmentzen dira. Gaixotasunak eragin dezakeen isolamendu soziala edota depresioa saihesteko joera handiago frogatu zuten maskota zuten pertsona gaixoen kasuan. Hala ere, maskotek eragindako efektuak ezin dira maskoten jabeakentzari soilik atxikitu, pertsona bakoitzaren pertsonalitatea eta baldintza sozialak kontuan izan behar dira ere.

4.1.1. Animalien eta pertsonen arteko lotura

Animalien eta pertsonen arteko erlazio guztiek ez dute lotura bat suposatzen. Bi izaki hauen arteko harremana erabilgarritasunean oinarritu daiteke, hala nola, baserritarraren eta bere abereen arteko harremana. Loturaren definizioari dagokionez, Carrillo-k eta Gutiérrez-ek (2000) honako hau zehazten dute:

Loturak denboran jarraitutasun jakin bat izan behar du eta beste indibiduo batekin interakzio berezi baten bidez sortzen da. Elkarrekin honak bi ezaugarri ditu; batetik, beste izakiarekin gertutasuna mantentzen du eta harremana geldiarazten denean konpontzen da. Bestetik, bestearen espezifikotasuna errespetatzen du errekonozimenduaren bitartez (52. or. nire itzulpena).

⁴Maskota etxekotutako animalia egiten dio erreferentzia; gizakiak bere egunerokotasunean mantendutako eta zaindutako animalia.

Katcher-en ustez (Gutiérrez, Granados eta Piar, 2007, 169. or.-ean aipatuta), gizakiaren eta animalia-arte harremanean azaldutako lotura egoteko oinarritzko lau printzipio egon behar dira: segurtasuna, intimitatea, kidetasuna eta konstantzia. Hasteko, segurtasuna animaliak gizakiei eskaini diezaiokeen segurtasunari egiten dio erreferentzia. Maskotaren presentzia jabearen lasaitasuna eragin dezake harreman sozialaren pertzepzioa hobetuz. Bestetik, intimitate egoerak modu naturalean sortzen dira, hala nola, jabea bere maskotari modu baxuan hitz egiten dionean edo laztantzen duenean. Kidetasunari dagokionez, pertsonak modu azkar batean animaliekin senidetasun harremanak sortzen dituen ematen da; animalia familiaren parte garrantzitsua bihurtzen da. Azkenik, konstantzia animaliak eskaintako laguntasunaren iraunkortasunari egiten dio erreferentzia.

Babes fisikoa eta psikologikoa emango digun loturazko erreferente hori norbanakoaren ikasketa prozesuarengatik baldintzatuta egongo da. Brickel zientzialariak (1985) animaliekin sortutako binkulazio ikasketa prozesua familia testuinguruan kokatzen du, hau da, jaiotzen garenetik gure testuinguruan dauden animaliekin sortzen da. Ikasketa prozesua hiru sistemek baldintzatzen dute: baldintzapen klasikoa, baldintzapen instrumentala eta ikaskuntza eraginkorra. Baldintzapen klasikoak estimulu ondorioari egiten dio erreferentzia; umea txakurrekin esperientzia ona baldin badu (estimulua), txakurrak gustatuko zaizkio (ondorioa). Baldintzapen instrumentalak erantzun ondorioari egiten dio erreferentzia; umea txakur bati laztantzen dagoenean eta txakurra lasai erantzuten duenean, txakurraren jarrera lasaia errefortzu positiboa izango da umea txakurra berriro laztantzea eraginez. Azkenik, ikaskuntza eraginkorra pertsonak bere testuinguruan ikusten duenari egingo dio erreferentzia; umeak txakurrari maitatzen zaiola ikusten eta sentitzen badu, berdina egingo du.


Yagüe-k azaltzen duen moduan (2007, 19. or.), gizakiaren eta maskotaren arteko harremana ezaugarritzen duten osagai komunak daude: boluntarioki sortutako harremana da, elkarrenganako eta iraunkorra, bi noranzkoko, gizakiak animaliak dituen beharren jakinean egotea eskatzen duena eta bientzako onuragarria dena.

Maskotaren eta jabearen arteko lotura neurtzeko eskala ere badago: Monash Dog Owner Relationship Scale (Fundación Affinity, 2016). Eskala honen bidez jabeak txakurrarekin duen interakzioa (elkarrekin egindako aktibitateen iraupena, ...), gertutasun emozionala (maitasuna, laguntza emozionala, kidesuna, laguntza soziala, ...) eta kostuak nahiz onurak neurtuko dira (mugak, gastuak, erantzukizunak, ...).

Pet Ownership Global Gfk survey 2016an 22 herrialde desberdinei eginiko elkarrizketen bitartez, munduko biztanleriaren erdia baino gehiagok (%57-a) maskotaren bat zeukala frogatu zen.

1. grafikoa. Munduko maskoten jabeakuntza sexuaren arabera.

Pet ownership by gender
Across 22 countries



Source: GfK survey among 27,000+ internet users (ages 15+) in 22 countries – multiple answers possible – rounded
© GfK 2016 | Pet ownership

9

Iturria: Gfk survey Pet ownership study, 2016, 9. or.

Hortaz, pertsonen eta maskota baten arteko lotura ohikoa dela edo pertsona gehienek dutela esan daiteke.

Hala ere, aipatu beharra dago jabeak izandako maskotaren pertzepzioa sexuaren, adinaren, beste animaliekin izandako interakzioen eta itxaropenen

araberakoa izango dela. Pertsona bakoitza animaliekin edo bere maskotarekin izandako harremana berdingabea izango da nahiz eta kasu gehienetan, aipaturiko harremanaren ezaugarriak izan.

4.1.2. Biofiliaren hipotesia eta animalien eragin onuragarriak gizakiengan

Gizakiok naturarekin ditugun harremanak aztertzeko biofilia hipotesiaren oinarrietan zentratzea beharrezkoa da. Biofiliaren hipotesia Wilson-ek idatzitako *Biofilia* liburuan ezagutua izan zen eta Kellert zientzialariarekin batera garatu zen. Wilson-en aburuz (1984) biofiliak honako definizioa du: “innate tendency to focus on life and life-like processes” (1. or.). Bizitzaren eta bizitzarekin zerikusia duten prozesuetan zentratzeko jatorrizko joera dagoela esaten du eta gizakiok naturarekin dugun dependentzia estetikoari, intelektualari eta kognitiboari egiten dio erreferentzia. Gizakion prozesu ebolutiboan zehar paisaiekiko eta animaliekiko erantzun positiboak garatu ditugu (Páramo eta Mejía, 2004, 75. or.).

Hipotesi honek gizakiak beste organismo bizidunekin harremanak izateko duen tendentzia eta beharra baieztatzen du. Jaiotzen garenetik, taupaden jarraitzaileen izakiak gara eta gure lehenengo segundoetan lasaitzen gaituena amaren bihotz taupadak dira. Planteamendu honek barnebiltzen dituen ikerlanak naturarekin kontaktu minimo bat izateak suposatzen dituen eragin positiboak frogatzen ditu; hala nola, lanpostuan leihotik begiratzeak lanaren produktibitate handiagoa eragitea. Kellert-ek (1995) biofiliaren hipotesia honela definitzen du:

“The biophilia hypothesis proclaims a human dependence on nature that extends far beyond the simple issues of material and physical sustenance to encompass as well the human craving for aesthetic, intellectual, cognitive and even spiritual meaning and satisfaction” (20. or.).

Naturak bizitzan bakarrik ez gaudela islatzen digu. Hala ere, gizaki guztiok hutsune existentzialak sentitzeko gaitasunak ditugu; ulertzeko zein azaltzeko hain zaila den sentimendua. Levinson ikerlariak (1972) aipatzen zuen moduan,

“Animaliek gizakien presentziarik gabe aurrera jarraitu dezakete, baina gizakia animalien presentziarik gabe aurrera jarraitu lezake?” (35. or. nire itzulpena).

Zientzialari asko animalien eta gizakien arteko loturak eragindako onurak aztertzen ari dira; nahiz eta ikerketa hauetako asko enpirikoki zalantzan jartzen diren ikerlan hauen kutsu deskriptiboa dela eta. Hala ere, programa eta estudio desberdinen ondorioz, izakien lotura hauen onurak hiru mailatan desberdinu dituzte: fisikoa, psikologikoa eta soziala (Gutiérrez, Granados eta Piar, 2007, 171-177. or.).

4.1.2.1. Onura fisikoak

Maskota batekin izandako elkarrekintzak onura fisiko anitzak eragiten ditu. Honela zehaztu egiten dute honen inguruan egindako hainbat ikerketek. Anderson-ek, Reid-ek eta Jennings-ek (1992) Australian egindako ikerketan, arazo kardiobaskularrak pairatzeko arriskua zuten pertsonak hautatu zituzten; horietatik portzentaje batek gutxienez maskota bat zuelarik. Maskotak zituzten pertsonak ariketa fisiko handiagoa egiten zuten, odol presio hobeagoa zeukaten baita kolesterola maila baxuagoan ere. Ikerketa honen bidez onura fisiko hauek maskota bat izatearen eragin zuzena direla frogatzea eta baieztatzea oso zaila da; baina ondoren burututako ikerketek animalia bat izateak eragindako portaera aldaketan harreman zuzena zehatzago frogatu dute. Hala nola, Allen-ek, Blascovich-ek, Tomaka-k eta Kelsey-k burututako ikerketetan (Gutiérrez, Granados eta Piar, 2007, 172. or.-ean aipatuta), maskota batekin egotearen erlaxazio egoerak eragiten duen estresaren murrizpena frogatu da, edota maskota bat izateak suposatzen duen jarduera fisikoaren areagotzea gaixotasun kardiobaskularrak pairatzeko arriskuak murriztuz.

Animaliek eragindako erlaxazioaren eragina Allen ikerlariaren beste ikerketa batean frogatu zen (Gutiérrez, Granados eta Piar, 2007, 172. or.-ean aipatuta). Hainbat emakumeei aritmetika ariketa batzuk egitea eskatu zien. Batzuk ariketa hau pertsona baten presentziaren aurrean burutu zuten; beste batzuk, ordea, bere maskotaren presentziarekin. Bere maskotaren aurrean ariketak burutu zituzten emakumeek besteak baino emaitza hobeagoak atera zituzten hauen presio arteriala txikiagoa izanik.

Onura kardiobaskular hauen eragina frogatuta izanda ere, kontuan izan behar da efektu hauek aldatu daitezkeela pertsonaren edo animalia-aren espeziaren arabera.

Onura kardiobaskularrez aparte, Virues-ek eta Buela-k (2006) aipatzen duten moduan, etxeko animalia-aren zaintzaren erantzukizuna izateak auto-zaintza portaerak eta gaitasunak sustatzen ditu. Hala nola, animalia paseatzera ateratzea, etxearen tenperatura egokitzea, etxearen toki pribatuak eta publikoak garbitzea, ... Honela, maskotaren bitartez animalia-aren jabe den gizakiaren bizitza osasuntsua sustatzen da.

Animalia-arekin izandako interakzioak estimulazio sentsoriala suposatzen du eta kontaktu fisiko honek errehabilitazio prozesu fisikoetan paper garrantzitsua izan dezake. Beck-ek azaldu zuenez, maskota laztantzen duten pertsona adinduek artritis sintoma, erreumaren mina eta gaixotasun fisikoen beste seinaleen eraginak gutxiago pairatzen dituzte. Lehen aipatu bezala, maskota bat izateak jabeari mugimendu fisikoan oinarritutako hainbat jarduera egitea suposatzen du (paseatzea, jokatzeko, animalia-aren zaintzarako ekintzak, etab.) eta errehabilitazio prozesuetan ere onuragarria izan daiteke (Gutiérrez, Granados eta Píar, 2004, 174. or.-ean aipatuta).

4.1.2.2. Onura psikologikoak

Aipatutako onura fisikoekin batera (ariketa fisikoa egitea eta interakzio soziala handitzea, adibidez), onura psikologikoak sortzen dira: depresioa pairatzeko posibilitateak murrizten dira eta bakardadeari aurre egiteko estrategia egokia izan daiteke. Maskota batekin izandako interakzioaren bitartez, autonomia, independentzia, norberaren errealizazioa eta motibazioa sustatzen dira.

Hainbat ikerketen bidez animaliekin izandako interakzioaren ondorioz gizakion oxitozinaren igoeraren harreman kausala frogatu da. Odendaal-ek eta Meintjes-ek egindako ikerketa batean, txakur bat laztantzeak eragiten zuen oxitozinaren igoera frogatu zen. Hormona honen ugalketa handiagoa zen laztandutako animalia subjektuaren maskota baldin bazen. Nagasawa-k, Kikusui-k, Onaka-k eta Ohta-k egindako beste ikerketa batean, pertsona bere maskotarekin interakziorik gabe 30 minutuz begietara begiratzeak subjektuaren txizan

oxitozinaren kopuruaren igoera frogatu zen (Díaz eta López, 2017 76-77. or.-ean aipatuta). “Zoriontasunaren hormona” moduan ezagututako honek gizakion gorputzean beharrezkoak diren hainbat funtzio betetzen ditu, hala nola jarrera sozialak, patroiz sexualak eta jarrera parentalak erreproduzitzen laguntzea (Díaz eta López, 2017, 78. or.). Hortaz, animaliarekin izandako interakzioaren ondorioz, oxitozinaren liberazioak antsietatearen eta beldurren jaitsiera suertatzen da konfiantza eta portaera sozialak sustatuz. Profesionalek onura hauek segurtasun arazoak dituen erabiltzailearen defentsa mekanismoak saihesteko edo gutxitzeko erabili dezakete (Yagüe, 2017, 30. or.).

Onura hauen inguruko beste adibide bat Levinson (1978) ikerlariak egindako ikerketa da, zeintzuetan maskoten presentziak umeen garapen kognitiboa eta autoestimua ahalbidetzen duela frogatu zen.

Honela, gaixotasun kronikoren bat pairatzen duten pertsonengan, animalia batekin izandako interakzioen ondorioz sortutako onura psikologikoak handiagoak izan daitezke. Pertsonen arreta animalien presentzian fokalizatzen da: animaliarri hitz egiten zaio, animalia zaintzen da, beste pertsoneri zure maskotaz hitz egiten diezu ... norbanakoaren arazoei jarritako arreta murriztuz.

Kasu hauetan, pertsona hauek bere maskotari kidetasun ezaugarria txertatzen diote eta bere bizitzaren kide bat kontsideratzen dute. Maskota konpainia eta kontsolamendu sorburua bihurtzen da; oinarri emozional oso sendoa, alegia. Baztertuak eta isolatuta dauden pertsonentzako euskarri oso inportantea izan daiteke. Hala nola, GIB-a (Giza Immunoeskasiaren Birusa) edo HIES-a (Hartutako Immunoeskasiaren Birusa) duten pertsonak baliteke heriotzara, infekzioetara edota abandonu sozialera beldurra izatea. Kasu hauetan, maskotak paper oso garrantzitsua jokatu dezake bien arteko harremana horizontaltasunean oinarrituz eta honek konpainia eta kontsolamendu iturria bihurtuz. Maskotak pertsonaren bazterketa pentsamenduak eta estresa txikitzen ditu pertsonaren sistema immunea hobetuz (Gutiérrez, Granados eta Piar, 2007, 176. or.).

Yagüe-k (2017, 30. or.) aipatzen duenez, norbanakoaren segurtasuna eta laguntza emozionala traumei aurre egiteko beharrezkoak dira. Halako gaixotasun psikologikoak landu behar diren kasuetan, animali baten presentziak profesionalaren eta erabiltzailearen arteko harreman segurua eta konfiantzazkoa sortzeko behar diren saioen kopurua murriztu ditzake.

Ezgaitasun fisikoa, sentsoriala edota intelektuala duten pertsonak askotan konfiantza falta edota autoestimu baxua izanen dute. Kasu hauetan, animali baten kontrol fisikoa izateak eta animaliarekin izandako interakzioak pertsonaren koordinazioa, mobilitatea eta gaitasunak indartzen dira konfiantza eta autoestimu arazoei aurre eginez (Martínez, 2008, 130. or.).

Argi dago egoera hauen agerpena ez dela pertsona guztietan ematen, pertsona bakoitzaren sexua, adina, jarrera eta beste hainbat euskarri psikologiko kontuan hartu behar dira. Animaliek sortutako efektuen orokortze joera saihestu behar da egiaztapen enpirikoetan oinarrituz.

4.1.2.3. Onura sozialak

Gizakien eta animalien arteko harremanaren loturak sortutako onura garrantzitsuenetarikoak katalizatzaile sozialaren efektua da: kohesio soziala, joko kooperatiboak⁵, beste gizakiekiko kooperazio handiagoa eta beste pertsonetikiko kontaktu soziala areagotzen dira.

Smith ikertzaileak (Gutiérrez, Granados eta Piar, 2007, 177. or.-an aipatuta) maskotak familiarekin duen interakzioaren inguruko ikerketa etologikoa burutu zuen. Ikerketaren lagina maskota zuten hamar familia izan ziren eta hauen arteko interakzioetan desberdintasun anitzak frogatu zituen hainbat erregulartasun aurkituz. Hasteko, maskotari eskaintzen zitzaion arreta beste familiako kide bati eskaintzen zitzaiona baino txikiagoa zela frogatu zen; maskota bigarren plano batean edukiz. Bigarrenik, maskotarekin egindako jokoetan umeak ez ezik, familiako beste kide guztien parte-hartzea zegoen. Hirugarrenik, bazkariak aktibitate sozial moduan barneratuta zituzten;

⁵Joko kooperatiboen helburua ez da bata besteari irabaztea edo jokoaren protagonisten arteko lehiaketa, baizik eta parte-hartzaile guztien gaitasunak antzematea norbanako eta taldearentzako onurak eskuratzeko (Omeñaca, Puyuelo eta Vicente, 2001, 21. or.).

orokorrean bazkaltzeko ekintzetan familiako kide bat baino gehiago elkartzen ziren eta maskotak bazkariak baldintza sozialetan egiten zituen. Hamar familietan emandako erregulartasun hauekin maskotak familiaren barruan eragindako kohesio sozialak eta jokaera sozialen ezarpena agerian jarri ziren.

Maskota bat izateak beste pertsona ezagun edo ezezagun batzuekin komunikatzeko erraztasunak eragiten ditu. Animaliek gizarte harremanen prozesua isurtzea ahalbidetzen dute; maskoten presentziak beste pertsonekin harremanetan jartzeak edo hurbiltzeak errazten baitu. Maskotekin doazen pertsonak modu positiboago batean hautematen ditugu baita komunikatzeko disposizio handiago batekin ere (Gutiérrez, Granados eta Piar, 2007, 178. or.). Beraz, maskota baten konpainiak adiskide berriak egitea laguntzen du eta interakzio sozial positiboak eta afektiboak sustatzen ditu.

Balazote-k (1999) adineko pertsonekin egindako ikerketa batean, maskota zuten partaideek maskotak presente zituztela komunikazioa %50-a areagotzen zutela frogatu zuen animaliek transmititutako komunikatzeko eta sozializatzeko erraztasunak nabarmenduz.

Friedmann-ek, Katcher-ek, Linch-ek eta Thomas-ek (1980) egindako ikerketan aipatzen dutenez, maskotek jabeek izan beharreko egunerokotasunaren aktibitateak zehaztu ditzakete; paseatzera ateratzea, elikatzea, garbitasuna, etab. Honela, maskotek egunerokotasun ordenatua eta egokia eramateko ohitura eta erantzukizun zehatzak eskatzen dituzte pertsonaren integrazioa sustatuz.

4.2. Animalien laguntzarekin egindako esku-hartzeak

Gaur egungo arazo psikologikoei, sozialei, fisikoei, emozionalei, etab.-ei aurre egiteko naturala eta ohikoa den animaliekiko harremana eta konexioa berpiztu da. Pertsonekin lan egiten duten profesioetan zehazten diren helburuak lortzeko bide berria litzateke; urteetan zehar izandako esku-hartzea eraldatzen edo ordezkatzan dute animalia baten presentzia sartuz. Hortaz, animalien laguntzarekin egindako esku-hartzeak interbentzio modalitate desberdinak barnebiltzen dituzten animaliekin egindako lana da. Osasun eremuan, hezkuntzan edo gizarte zerbitzuetan animalia batekin egindako interbentzioak

dira osasun eta gizarte arloko onurak, pertsonen ongizatea edota helburu terapeutikoak lortzeko asmoz (Yagüe, 2017, 20. or.).

Animalien eta gizakion arteko harremanak sorturiko onurez baliatuz, animaliekin egindako esku-hartzeak sortzen dira. Interbentzio hauen helburua animalien eta gizakien arteko zaintzan eta atxikimenduan oinarritutako harremana ustiatzea da animalia-aren zaintza, rolen transmisioa eta animaliak emandako laguntza soziala aprobetxatuz. Arlo desberdinetako profesionalak burutu dezakete beti ere esku-hartze hauen inguruko formakuntza izanda eta animalien hezitzaileekin batera. Hala ere, gaur egun animaliekin egindako interbentzioak definitzeko bidean daude; indarguneak zein ahuleziak aurkezten dituen eremu zabala osatzen dute.

Horretarako erronka teoriko eta praktiko berriei aurre egitea beharrezkoa suertatzen da; pertsonen ongizatea sustatzen duen eta zientifikoki frogatuta dagoen interbentzio honen garapena eta errekonozimendua indartzeko.

Perea-k, López-ek, Tejada-k eta Sarasola-k (2014) egindako ikerketan, Espainiako unibertsitateko ikasleek animalien interbentzioek duten erabilgarritasunari buruz dituzten itxaropenak ikertu zituzten. Emaidza kolektibo desberdinekin burututako animalien laguntzarekin egindako interbentzioak oso positiboak izan daitezkeela izan zen. Honekin batera, interbentzio hauen inguruko jakin-nahia eremu desberdinean lan egingo duten etorkizuneko profesionalen artean ematen dela frogatu zen; osasuna, soziala, hezkuntza, ... Emaidza hauek profesional hauen etorkizuneko lan eremuan interbentzio berri hauei harrera egokiaren eta positiboaren aurretiko joera islatzen dute.

4.2.1. Animalien laguntzarekin egindako esku-hartzeen jatorria eta historia

Antzinako historiaren pasarte batzuetan animalien eta gizakion arteko harremanek sortutako osasun onurak eta ongizatearen sinesmenak daude, nahiz eta enpirikoki frogatuak ez izan. Adibidez, egiptoar herrialdeek animalien sendatzeko gaitasuna gorai patzen zuten edota antzinako Grezian pertsonaren autoestimua handitzeko zaldiekin paseatzen zuten (Yagüe, 2017, 13 or.).

Gaur egun ezaguna den animalien laguntzarekin egindako terapiaren (*Terapia Asistida por Animales; TAA*) aurrekariak 1792 urtean Retreat de York-en (Ingalaterra) aurkitzen dira. Osasun mentalaren arloko zentro honetan, baserriko animaliekin denbora pasatzea aholkatzen zen osasun mentaleko arazoak zituzten pertsonen egoera hobetzeko. Honela, Ingalaterra eta ondoko herrialdeetan osasun mentaleko instituzio eta zentro desberdinek burututako terapietan animalien figura hedatzen joan zen.

XIX. mendean zehar, medikuntza arloan animalien laguntzarekin egindako terapien adibideak aurkitzen dira. Hala nola, zaldien laguntza hezueri gaixotasuna tratatzeko, arazo neurologikoak lantzeko edota autoestimua sustatzeko. II. Mundu Gerraren ostean, zaurituen arazo psikologikoak eta fisikoak sendatzeko baserriko animaliak erabili zituzten. 1948an Nueva York-en Samuel B. Ross-ek *Green Chimneys* izeneko adingabeen baserri eskola sortu zuen. Honen helburua gazteek baserriaren propio diren ekintzak bere egunerokotasunean barneratzea izan zen. 1970ean, ordea, bere funtzioa aldatu egin zuen eta jarrera desegokiak eta arazo emozionalak zituzten umeei eta gazteei animalien lanaren bitartez lanketa burutzea bilakatu zen helburu berria. Gaur egun, oraindik lanean dago eta animalien egindako esku-hartze arloan erreferente garrantzitsua bilakatu da (Yagüe, 2017, 14. or.).

Animalien laguntzarekin egindako esku-hartzeen zientifikotasuna Bossard psikiatraren eskutik heldu egin zen 1944. urtean Mental Hygiene izeneko aldizkarian artikulu bat idatzi zuenean. Artikuluan animaliekin izandako loturak eta familian maskota integratuta egoteak osasun mental arloan eragin ditzakeen onurei buruz hitz egiten zuen. Hala ere, harremana eraginkorra izateko eman beharreko pausoak edo jarraibideak ez ziren zehazten.

1953an, Levinson ikerlariak kasualitatez saio terapeutiko batean animalien presentziaren onurez konturatu zen. Aurreko saio guztietan isilik egondako ume batek bere txakurraren presentziarekin hitz egiten hasi zen. Ikerlariak umearen eta beraren arteko bitartekari lana txakurrak egin ahal zuela konturatu zen. Levinson animalien laguntzarekin egindako psikoterapien aitzindaria da; *The dog as a co-therapist* (1962), *Pet- Oriented Child Psychotherapy* (1969) eta *Pets and Human Development* (1972) liburuekin animalien laguntzarekin

egindako terapien prozesuak, onurak eta jardunbide teorikoak finkatu zituen. Berriak ziren interbentzio hauen garapena eta bermea ahalbidetu zituen.

Levinson-ek emandako hasieraren ondoren, animaliekin egindako esku-hartzeak osasun eremutik kanpo beste arlo batzuetan garatzen hasi ziren. Honela animalien laguntzarekin egindako terapien garaia hasi zen; hauei buruzko ikerketa ugari publikatzen hasi ziren eta gizartearen bi kolektibo garrantzitsuen eskutik harrera egokia eman zen. Alde batetik, animaliak babesteko elkarleen eskutik eta bestetik, zaurgarritasun egoeran zeuden edo arazoak zituzten pertsonak osatutako kolektiboetatik eta elkarreetatik. Garai honetan, animalia asko adoptatu ziren eta animaliekin lan egindako onuradunen ongizatea handitu zen hainbat ikerketa eta aldizkarietako artikuluek islatzen zuten moduan. Hala ere, esperientzia hauetan akademikotasun falta zegoen, esperientzia hutsak zirelako. Honek eszeptizismoa bultzatu zuen; baita Levinson ikerlariak egindako ikerketei buruz zalantzak sortu ere (Yagüe, 2017, 15 or.).

Zalantza betetzen ari zen garai honen aurrean, 80-ko hamarkadan esku-hartze mota honen zientifikotasuna kolokan jartzen zuten hainbat ikerketa publikatu ziren (Yagüe, 2017, 14-15. or). Esperientzia anekdotikoetan eta subjektibotasunean oinarritutako ondorioak zirela atxikitzen zitzaizkien haien balore terapeutikoa deuseztatuz.

Esku-hartze mota honen krisi egoerari aurre egiteko asmoz, Estatu Batuetan 1977. urtean Delta Fundazioa sortu zen, 1981. urtean Delta Society izena hartuko zuena. Gaur egun PetPartners izenarekin ezagutzen da, gizakiaren eta maskoten arteko harremanak sortzen dituen eragin positibo eta osasuntsuak egiaztatzea helburu duen elkartea. Honekin batera,

animaliaren ongizatea bermatzeko lan egiten dute seguruak eta al baitari zerbitzuak eskainiz.

Fundazio honen bultzada izan ondoren, hurrengo urteetan zehar helburuaren arabera animalien laguntzarekin egindako interbentzioak bi taldeetan sailkatzen hasi ziren: animalien laguntzarekin egindako terapiak eta animalien laguntzarekin egindako ekintzak. Lehenengoak helburu terapeutikoa zuen eta

bigarrenak, ordea, helburu ludikoak zituen lortu nahi zen hobekuntza zehaztu gabe geldituz.

4.2.1.1. Gaur egungo egoera

Gaur egun, mundu mailan aipatutako PetPartners-ekin batera, aplikazio honen zientifikotasuna sendotzeko hainbat erakundeek animalien laguntzarekin egindako esku-hartzeak gizakioi sortutako ongizatea ikertzen dute. Honekin batera, protokoloen garapena, animalien laguntzarekin egindako interbentzioen errekonozimendua, praktikaren estandarrak eta emaitzak hedatzea bilatzen dute.

Nazioarteko mailan, 1990. urtean sortutako International Association of Human-Animal Interaction Organizations (IAHAIO) erakundea dago. Erakunde hau animalien laguntzarekin egindako interbentzioen praktikara, ikerketara eta hezkuntzara dedikatzen da. Mundu osoko profesional anitzek osaturiko 90 entitate baino gehiagorekin elkarlanean aritzen dira. European, berriz, arlo honetan lan egiten duten erakundeak hauek dira: 2004. urtean Vienan sortutako European Society for Animal Assisted Therapy (ESAAT); Zurich-en 2006. urtean sortutako International Society for Animal Assisted Therapy (ISAAT) eta Herbeheretan 2013. urtean sortutako Animal Assisted Intervention International (AAIL) (Yagüe, 2017, 17. or.).

Espanian zentratzean, 80. hamarkadan esperientzia puntualak ematen hasi ziren. 1987. urtean, Purina Fundazioak (gaur egungo Affinity Fundazioa) hamarkada horretan emandako esperientziak erregistratzen hasi zen eta bi izaki hauen arteko interakzioen onurak hedatzen ere. 1991. urtetik aurrera, fundazio honek hainbat kongresu antolatu eta artikulu argitaratu ditu eremu honetako esku-hartzeen ikerketa zientifikoa bultzatzeko. 90-eko hamarkadaz geroztik, herrialdearen parte desberdinetan animalien laguntzarekin egindako esku-hartzeak egitea eta hedatzea sustatzen joan da sektore pribatuko erakundeen eskutik. Hamarkada honetan, 1994. urtean sortutako Bocalan Fundazioa eta zenbait urte geroago CTAC nabarmentzen dira maila internazionalen.

2000. urtetik aurrera, gaur egungo hedapenaren ondorioa izango den esperientzien garapena eman zen. Gaur egun, ordea, Martos-ek, Ordoñez-ek, Fuente-k eta García-k aipatzen duten moduan (2015, 2. or.), esku-hartze mota hauen egoera jakiten ahalbidetzen digun azterketarik ez dago; susmoa jakintza baino handiagoa da. Espainia eremuan lan egindako profesionalen kopurua, orientazioa, jatorria, ... zehaztu gabe dago. Gainera, profesional gehienak barnebiltzen dituen entitate edo erakunde ordezkatzailerik ez dago.

Martos-ek, Ordoñez-ek, Fuente-k eta García-k (2015) egindako ikerketak Espainian dagoen zientifikotasun hutsunea betetzea helburu du. Horretarako galdetegi bat egin zuten animalien laguntzarekin egindako interbentzioak burutzen zituzten ahalik eta entitate nahiz profesional gehienei pasatzeko (1. eranskina).

Ikerketa honen bidez animalien laguntzarekin egindako interbentzioak autonomia-erkidego guztietan ematen direla dakigu; horietatik jendeztatuena gehiago eginez.

1. Taula. *Kontsultaturiko entitateetatik autonomia-erkidego bakoitzaren kopurua.*

Comunidad Autónoma	Número de entidades IAA	Porcentaje
Comunidad de Madrid	15	27%
Cataluña	10	18%
Andalucía	6	11%
País Vasco	5	9%
Aragón	3	5%
Canarias	3	5%
Asturias	2	4%
Castilla-León	2	4%
Castilla-La Mancha	2	4%
Comunidad Valenciana	2	4%
Cantabria	1	2%
Galicia	1	2%
La Rioja	1	2%
Navarra	1	2%
Región de Murcia	1	2%

Iturria: Martos et al. (2015, 3 or.).

Animalien laguntzarekin egindako interbentzioetara dedikaturiko entitateak Espainia osoan aurkitu daitezke, hala ere, gehienak autonomia erkidego jendeztatuenetan aurkitzen dira: Andaluzian, Katalunian eta Madrilen. Entitate bakoitzean bost langile kualifikatu daudela estimatzen da eta 275 langile Espainia osoan.

Animalien laguntzarekin egindako terapien inguruan dagoen formakuntza eskasarekin lotuta, galdetutako erakundeen %73-k eremu honetako formakuntza espezifikoa eskaintzen dute. Beste %23-k ez du formakuntzarik eskaintzen baina erakunde barruko profesionalen formakuntza espezifikoaz arduratzen dira.

4.2.2. Animalien laguntzarekin egindako esku-hartzeen kontzeptualizazioa

Animalien laguntzarekin egindako esku-hartzeek helburu eta funtzio desberdinak betetzen dituzte. Gaur egun, animalien laguntzarekin esku-hartzeak egiten dituzten erakundeek klasifikazio desberdinak erabiltzen dituzte; kasu batzuetan animalien laguntzarekin egindako terapia kontzeptuak interbentzioak, aktibitateak edota hezkuntza esku-hartzeak barnebiltzen ditu. Beste batzuetan, ordea, animalien laguntzarekin egindako terapiak osasun eremuan kokaturiko esku-hartzeei soilik erreferentzia egiten diete. Kasu honetan, interbentzio terminoak terapiak eta beste motatako esku-hartzeak besarkatzen ditu.

Esku-hartze hauek definitzeko zailtasunak eta kontzeptuen aniztasuna kontuan hartuta, badirudi PetPartners erakundeak animalien laguntzarekin egindako interbentzioei buruz argitaraturiko definizioa onartua izan dela eremu honetan lan egindako erakundeen eskutik; hala nola, IAHAIO nazioarteko erakundeak. PetPartners erakundeak bere web-gunean honela definitzen ditu animalien laguntzarekin eginiko interbentzioak⁶:

“Animal-assisted interventions are goal-oriented and structured interventions that intentionally incorporate animals in health, education, and human service for the purpose of therapeutic gains and improved

⁶ <https://petpartners.org/learn/terminology/> (2018/05/04-an begiratuta)

health and wellness. Animal-assisted therapy (AAT), animal-assisted education (AAE) and animal-assisted activities (AAA) are all forms of animal-assisted interventions. In all these interventions, the animal may be part of a volunteer therapy animal team working under the direction of a professional or an animal that belongs to the professional himself.”

Erakunde honek animaliekin egindako interbentzioen barruan terapiak, hezkuntza eta aktibitateak sartzen dituela ikusi daiteke. Lan honek azkeneko sailkapen honi egingo dio erreferentzia animalien laguntzarekin egindako interbentzioen barruan terapiak, hezkuntza edo aktibitateak sartuz.

4.2.2.1. Terapiak

Animalien laguntzarekin egindako terapietan, tratamenduaren prozesuan zehar animaliaren laguntza egonen da tratatutako pertsonen funtzio fisikoak, psikosozialak eta kognitiboak hobetzeko helburuarekin. Profesionalak helburu terapeutiko zehatzak eta aldaketarako neurriak zehazten ditu; hala nola, fisikoak, kognitiboak, jarrera aldatzekoak edota sozio emozionalak. Terapiaren saioak jarraitutasun eta segimendu zehatz bat izatea beharrezkoa da helburuak bete daitezen. Terapia mota hauek burutu ahal dituzten profesionalak anitzak izan daitezke: medikuak, psikologoak, fisioterapeutak, erizainak, logopedak, etab. Gehienetan osasun arloan kokatzen dira (IAHAIO, 2013).

Animalien laguntzarekin egindako terapiak animalia mota kontuan izanda anitzak izan daitezke: txakurrekin egindakoak, hipoterapia, delfinoterapia etab.

4.2.2.2. Hezkuntza

Terapeutikoa den prozesuak helburu pedagogikoak baldin baditu (gaitasun sozialak sustatzea edo errendimendu akademikoa handitzea, esaterako), animalien laguntzarekin egiten bada eta hezkuntza arloko profesional batek zuzentzen badu, animalien laguntzarekin egindako hezkuntzari egiten dio erreferentzia (IAHAIO, 2013). Hala nola, idazten edo irakurtzen ikasteko prozesuan irakasleak txakur baten laguntza izatea.

4.2.2.3. Aktibitateak

Animalien laguntzarekin egindako interbentzioetan helburu zehatzak eta aldaketarako neurriak zehazten ez direnean, animalien laguntzarekin egindako

aktibitateak dira. Interbentzio hauek onura desberdinak sustatzeko burutzen dira, hala nola, pertsonaren motibazioa sustatzea edota dibertimenduzko jolasak sustatzea. Onura hauekin batera pertsonen bizi kalitatearen eta ongizatearen handitzea lortu nahi da.

Aktibitateak bisitak edo animaliekin izandako interakzioak izaten dira estruktura malguagoak izanez. Honela, aktibitate berdina pertsona bat baino gehiagok egin dezake pertsona zehatz batentzat indibidualizatuta prestatuta ez dagoelako. Hau da, aktibitateek ez dituzte hartzaillearen ezaugarriak eta helburu zehatzak kontuan izaten. Ez dira helburu zehatzak lortzeko asmoz egiten hortaz, aktibitateak egin eta ondorengo ebaluaketak egitea hautazkoa da (IAHAIO, 2013).

4.2.3. Animalien laguntzarekin egindako interbentzioetan erabilitako animaliak


Esku-hartze anitzak dauden moduan, hauek burutzea laguntzen dituzten animaliak oso desberdinak izan daitezke. Animaliaen laguntzarekin egindako interbentzio baten animaliaen aukeraketak interbentzio hori burutzen den eremuaren arabera izango da, baita onuradunaren behar eta interesen arabera ere.

Animaliaen ezaugarriak lan eremu edo egoerara egokitu behar dira; eremu berezietan lan egiteko trebatuak egon behar dira eta aurreikusi ezin diren erreakzioen aurrean erantzuten ikasi behar dute (Martinez, 2009, 112. or.). Horregatik animalia guztiek ezin dute esku-hartzeetan lan egin; albitariak edo animalien portaeran adituak diren profesionalak animaliaen tenperamentuaren eta jarreraren ebaluaketa zehatzak burutu behar dituzte. Hala ere, erabilitako animalia guztiak domestikoak izan behar dira; gizakiekin izandako interakzio sozialetara ohituta dauden animaliak, alegia (IAHAIO, 2018).

Animalien laguntzarekin egindako interbentzioetan txakurra nagusitzen da; arraza eta izaera anitzengatik baita trebatzeko erraztasunagatik ere. Espainian kokatuz, Martos-ek, Ordoñez-ek, Fuente-k eta García-k (2015) egindako ikerketaren arabera elkarrizketatutako erakundeen %62-ek esklusiboki txakurra erabiltzen dute eta %95-ek txakurrekin batera beste animalia batzuk

erabiltzen dituzte. Jarraian, zaldia, baserriko animaliak, katua eta hegaztiak kokatzen dira. Intsektuak, akuriak eta uretako animaliak gutxiengo presentzia dira (2. grafikoa).

2. grafikoa. *Espainiako erakundeek erabilitako animalien espezien portzentajea.*



Iturria: Martos et al., (2015 4. or.).

Erakunde bakoitzak dituen animalien kopurua animalien laguntzarekin egindako interbentzioen kopuruaren eta moten araberakoa da. Animalien kopuruaren tartea bat eta hamarren bitartekoa da; elkarrizketatutako erakundeen animalien kopurua osotara 213 izanik (4. or.).


Aipagarria da Fine erakundeak (Ansodi, Guerrero eta Siurana, 2015, 44. or.-ean aipatuta) animaliekin egindako esku-hartzeetan animalien ongizatea eta segurtasuna bermatzeko kontuan hartu behar diren hainbat ardura. Edozein esku-hartzeen saioak efikazak izateko, saioa osatzen duten pertsonak eta animaliak gustura edo modu atseginean egotea beharrezkoa da. Animalia esku-hartzearen erraztatzaile moduan dago, ez erreminta bezala. Hortaz, animalia ongizatea bermatzea beharrezkoa da.

4.2.4. Animalien laguntzarekin egindako interbentzioak aplikatzeko eremu posibleak

Interbentzio hauen onurak ikusirik, anitzak dira aplikatzeko eremuak. Esku-hartutako onuradunaren ezaugarrien arabera zehaztuko da.

Martos-ek, Ordoñez-ek, Fuente-k eta García-k (2015) egindako ikerketarekin jarraituz, animalien laguntzarekin egindako interbentzioak eskainitako eremu gehienak hauek dira: neuroerrehabilitazioa, hezkuntza, osasun mentala (psikologia eta psikiatria), gizarte integrazioa eta gerontologia (3. grafikoa).

3. grafikoa. *Espanian animalien laguntzarekin egindako interbentzioek garatutako eremuak.*



Iturria: Martos et al., (2015, 5. or.).

Ikusi ahal dugunez, interbentzio hauen presentzia osasunean eta presondegietan mugatua da; %22-a osasunean eta kartzeletan, aldiz, %15-a. Beste interbentzio mugatuak epaitegietan, adingabeko zentroetan, egokitutako kiroletan, elikagai-trastornoetan eta gizarte bazterketa eremuetan aurkitzen dira.

4.2.4.1. Aniztasun funtzionala

Aniztasun funtzionalaren zabaltasuna kontuan harturik, frogatutako onurak eta aplikatzeko aukerak anitzak eta desberdinak dira. Maila sentsozialean, animaliarekin kontaktu fisikoa eskatzen dituzten ariketak burutu daitezke pertsonari esperientzia sentsozial berriak sortzeko eta estimulazio integrala sustatzeko. Ariketak honelakoak izan daitezke: animaliaren garbiketa edota janaria eman. Honekin batera pertsonaren auto-zaintza eta besteen zaintzarako ohiturak sustatu daitezke.

Kolektibo honekin animalien laguntzarekin egindako interbentzioak gaitasun pertsonalen inguruko lanketak burutzeko ohikoak dira: entzute aktiboa praktikatzea, aurpegira begiratzea, pertsona baloratua sentitzen den egoerak erreproduzitzea autoestimua sustatzeko, pertsonaren portaerek modu positiboa edo negatiboan animaliarengan eragina dutela frogatzea, etab.

Orokorrean, pertsonaren beharren eta helburuen arabera animalien laguntzarekin egindako esku-hartze anitzak burutu daitezke, beti ere animalien laguntzarekin egindako interbentzioetan profesionala den hezitzaile edo adituarekin egiten baldin bada.

4.2.4.2. Hezkuntza

Hezkuntza eremuan animaliekin egin ahal diren ekintzak kontaezinak dira. Ekintza hauek gaitasun kognitiboak irakatsi eta sustatzeko burutzen dira, baita haurren mugitzeko gaitasunak garatzeko ere.

Hezkuntza arloan ohikoa ez den animalia baten presentzia motibatuzko tresna interesagarria bihurtu daiteke. Kasu batzuetan irakurketa eta errendimendu akademikoa hobetzeko erabiltzen dira ere.

Honekin batera, animaliek ikasleen barruko sozializazioa ahalbidetzen dute jarrera prosozialak sustatuz eta ikaskideen arteko gatazkak gutxituz. Arlo honetan burututako ekintzek autonomia pertsonala, erantzukizuna, autokontzeptua eta autoestimua sustatzea bilatzen dute.

4.2.4.3. Beste instituzio ezberdinetan egindako programak

Instituzio baten barruan eskaintzen dituzten zerbitzuak edo programak izan daitezke; hala nola, ospitaletan, adinduen egoitzetan edota presondegietan.

Monotonian ezaugarritzen diren instituzio hauetan honelako interbentzioak erabiltzeak, onuradunentzako motibazio berria eta errutinatik ateratzea suposatzen du. Honen adibide daukagu Bartzelonako Quatre Camins espetxean 1993an Espainian eremu honetan animaliekin egindako lehen interbentzioa. Espetxe horretara boxer arrazako bi txakur, arra eta emea, eraman zituzten. Txakurrak toxikomania arazoak eta arreta berezia behar zituzten 34 espetxeratuen esku utzi zituzten, beste presondegiko profesionalekin batera. Bi txakur hauen jabetzaren helburua espetxeratuen

autoestimua handitzea zen. Txakur emeak txakur kumeak izan zituen eta ernaldi prozesu honek itxaropen berria eta errutinaren puskaketa sorrarazi zuen. Programa honen bidez animaliekin interbenitzeak sorrarazten dituen onurak frogatu ziren; hala nola, espetxeratuen autonomia handitzea, zaintza ohiturak barneratzea, etab. (Martinez, 2009, 124. or.).


Beste adibide moduan, errehabilitazio psikosozial zentro batean gizarte langintzatik burututako animalien laguntzarekin egindako terapia aurkitzen da. Kasu honetan, terapia hiru hilabetekoa izan zen aste bakoitzean 45 minutuko saio batekin eta txakurraren hezitzailea, gizarte langilea, txakurra eta erabiltzailea parte hartu zuten. Helburu nagusia erabiltzaileen ongizatea hobetzea eta komunitatean integratzeko norbanakoaren gaitasun pertsonalak garatzen sustatzea izan zen (Ansodi, Guerrero eta Siurana, 2015).

4.2.5. Animalien laguntzarekin egindako interbentzioak burutzen dituzten profesional desberdinak

Profesional anitzak dira bere egunerokotasuneko interbentzio profesionalean animalien presentzia sartu ditzaketenak: medikua, fisioterapeuta, irakaslea, al baitaria, hezitzailea, psikologoa, gizarte langileak, gizarte hezitzailea, ... pertsonen ongizatea jarraitzen duten profesional desberdinak.

Lehen aipatu bezala, animalien laguntzarekin jarduerak egiten dituzten entitate bakoitzean 5 langile kualifikatu daudela estimatzen da eta 275 langile Espainia osoan. Profesionalen artean gailendutako formakuntza eta profesioa animalien hezitzailea, psikologoak eta hezitzaileak dira (4. grafikoa).

4. grafikoa. *Esku-hartze hauetara dedikatutako profesionalen perfila (entitateetan aurkeztutako profesionalen eremuaren portzentajea).*



Iturria: Martos eta al., (2015, 4. or.).

4.3. Gizarte langintza eta animalien laguntzarekin egindako interbentzioak

4.3.1. Gizarte langintzaren historia

Gizarte langintzaren sorrera mendebaleko Europa industrializazio-aroan kokatzen da; hala ere, gizakiaren bilakaeran gertatu diren laguntza-formak asko izan dira baita arrazoi desberdinek sortutakoak ere.

Erdi Aroaren hasieran, elizak babesgabei behar bezalako laguntza ematea agintzen zuen limosna izena hartuz. Ekintza honen bidez, espirituaren betiko salbamena lortzen zen eta honen ondorioz derrigorrez burutu beharreko ekintza legitimatzen zen. Honela, pobrezia naturala zela ulertzen zen; aberatsak egon behar ziren pobreak mantentzeko.

Europako Aro Modernotik aurrera, ordea, gizartea sekularizatzen hasi zen eta karitateak elizaren monopolioa izateari utzi zion. Pobrezia ez zen naturala baizik eta pertsonen alferkeriaren ondorioz sortutako fenomeno askoren iritzi. Hortaz, pobrezia arazoa bihurtu eta Estatuak esku-hartzeko beharra ikusi zuen. Industrializazioaren ondorioz gizarte aldaketa handiak eman ziren gizarte-laguntzarako ikuspegia eraldatuz.

Europako Erdi Aroaren amaieran, berpizte ekonomikoarekin batera, gizarte langintzaren lehengo hastapenak jaiotzen hasi ziren; hala nola, pobreei eman beharreko laguntza eskubide moduan izatearen pentsamendua (Kohs, 1966).

Gizarte langintzako sorreraren aitzindarietako bat 1869an Londresen jaiotako *Charity Organization Society* (COS) daukagu. Erakunde honek aukera berdintasuna goraipatzen zuen; pertsona guztiek aukera berdina izan behar zuten eta laguntza diskriminatua proposatzen zuen pertsona bakoitzari eman beharreko arreta indibiduala eta desberdina izanez (Moix, 1991, 95-96).

Gizarte langintzako beste aitzindaria 1838an Ingalaterran jaiotako Octavia Hill da. Emakume honek orduko langileek jasandako zapalkuntzen kontra lan egiten zuen. Bere ekarpenik esanguratsuena indibidualizazioari eta harremanari emandako garrantzia izan zen. Honekin batera, gizarte langilearen prestakuntzaz arduratu zen 1903an *London School of Sociology* izeneko lehenengo unibertsitate-eskola sortuz.

Mary Rychmond-ek, 1861ean Estatu Batuetan jaiotako emakumeak, gizarte langintzaren prestakuntzari garrantzi handia eman zion 1898an New York-en gizarte langintzako eskola bat eratuz. Emakume hau ikerle eta idazle moduan nabarmendu zen, gizarte langintzako erabakigarriak izan ziren hainbat lan argitaratuz: *Social Diagnosis* (1917) edo *Zer da kasuzko gizarte langintza?* (1922), besteak beste.

Beste aldetik, 1884an *Settlement* egoitza sortu zen Barnett senar-emazteen eskutik. Hauek taldeko gizarte langintza proposatu zuten unibertsitateko ikasleek egoitza horretan zeuden behartsuekin denbora pasatuz. Honela pertsonen sendotasuna eta nortasuna lantzen zuten adiskidetasun eta helburu komunak partekatuz. Aberatsen eta pobreen arteko zubi lanak egiten zituzten.

Bukatzeko, aipatzekoa da Jane Addams emakumea, *Settlement* mugimendua Estatu Batuetara zabaldu baitzuen; Chicagoko *Hull House*, alegia.

4.3.2. Gizarte langintzaren maila desberdinak

Gizarte langintzaren funtsa gizakion behar sozial indibidualei edo kolektiboari aurre egiteko pertsonen gaitasunak garatzea da. Hori dela eta, gizarte

langintzaren esku-hartzeak hiru maila desberdinetan kokatu daitezke: banakako, taldeko edo komunitateko gizarte langintza.

Banakako gizarte langintzari dagokionez, erabiltzailea aldi berean subjektua eta objektua da eta interbentzioa profesionalaren eta erabiltzailearen arteko harremanean oinarritzen da. Taldekoan, aldiz, taldea osatzen duen norbanako bakoitzak taldekideen eta gizarte langilearen arteko interakzioen bitartez esku-hartzea burutzen da. Gizarte langilea eta beste taldekideak sortutako interakzioen bitartez, pertsonen ongizatea eta garapena ahalbidetzen da elkarrekin aberastuz. Azkenik, komunitateko gizarte langintzan, gizarte langileak komunitatearen baitan sortutako arazoak gainditzeko lagunduko du behar-baliabide mugimenduen artean kokatuz (Ander-Egg, 1984, 51-66. or.).

4.3.3. Gizarte langintzaren esku-hartzeko eremu eta kolektibo desberdinak

Gizarte langileak gizarte ongizatea helburu duten eremu desberdinetan mugitzen dira. Zamanillo-ren eta Gaitan-en (1991, 103-104. or.) aburuz, hauek dira gizarte langileek lan egiten duten espazioak:

- Gizarte zerbitzuak: oinarrizkoak eta espezializatuak
- Hezkuntza zerbitzuak: hezkuntza normalizatua eta berezia
- Osasun zerbitzuak: oinarrizko arreta eta arreta espezializatua
- Justizia administrazioarekin erlazionaturiko zerbitzuak: espetxe erakundeak eta tribunalak
- Lan sektorearekin erlazionaturiko zerbitzuak: enpresak, sindikatuak, kooperatibak, ...
- Etxebizitza zerbitzuak
- Administrazioan, gerentzian eta planifikazioan beti ere gizarte ongizatearen arloko zerbitzuak badira
- Inbestigazioa eta irakaskuntza

Eremu desberdin hauetan kolektibo ugari aurkitzen ditugu, hala nola, etnia desberdinetako pertsonak, aniztasun funtzionala duten pertsonak, bazterketa soziala pairatzen dutenak, etorkinak, LGTBI kolektiboa, emakumeak, ... hau da,

gizarteko faktoreen eta arazo sozialen ondorioz zaurgarritasun egoeran aurkitzen diren kolektiboak.

4.3.4. Gizarte langintzaren eta animalien laguntzarekin egindako interbentzioen arteko harremana

Ikusi ahal izan dugun moduan, animalia- eta pertsona-arteko harremana onura kontziente eta inkontziente askoren eragilea da. Pertsonok onurak lortzeko helburuarekin beste pertsona batzuekin harremana izaten dugun moduan, animaliekin izandako harremanak ere onura fisikoak, psikologikoak eta sozialak sortzen ditu. Gizarte langileak onura hauetaz baliatu daiteke bere lan eremuan egokituz gero, profesional desberdinetako taldearen laguntzarekin ekintza desberdinak fusionatuz.

Gizarte langintza burutzeko maila, eremu eta kolektibo desberdin eta anitzak ikusirik, profesio honen baitan animalien laguntzarekin egindako interbentzioak erabiltzeko aukerak amaigabeak dira. Gizarte langile baten interbentzioaren barruan, interbentzioa osatzen duten elementu guztiak kontuak harturik, animalien laguntzarekin egindako interbentzio bat egokitzea aukera bat izan daiteke. Horretarako, profesional desberdinek osatutako taldearen laguntza eta elkarlana beharrezkoa da; gizarte langilea, laguntzailea izango den animalia, animalia horren hezitzailea, etab.

Esan bezala, gizarte langintzak pertsonen eremu psikosozialean lan egiten du, hau da, pertsonaren gizarteratzea helburu duten mota desberdinetako ekintzak besarkatzen ditu komunitatean bizitza egokia garatzeko behar dituen gaitasunak eta trebetasunak garatzen lagunduz. Garapen prozesu honetan zehar, animaliak erraztatzaile eta laguntzaile rola hartzen du.

Gizarte langintzaren helburuak, nahiz eta momentuko gizartearen balio eta beharrezkoak izan, De Robertis-ek gizarte langilearen helburu orokorrak hurrengo moduan zehazten ditu (2003, 76. or.): pertsonaren gizarteratzea ahalbidetzea, norbanakoaren garapena sustatzeko aukerak sortzea eta pertsonak gaitasun pertsonalak eta autonomia lortzeko lanketan akonpainatzea. Horretarako gizarte langileak sare, pertsona eta erakunde edo instituzio desberdinen bitartekaria edo zubi lanak burutzen ditu lotura soziala

sustatuz. Kasu honetan, animaliak gizarte langilearen laguntzailea bihurtu daiteke erabiltzaile eta animalia baten arteko harremanak sortutako onura sozialak, psikologikoak eta fisikoak aprobetxatuz. Matínez-ek (2008, 120. or.) animalia horrek hartutako papera kontuan hartuz *Animal Facilitated Therapy (AFT)* moduan izendatzen dela aipatzen du.

Hauek izan daitezke gizarte langile baten funtzioak animalien laguntzarekin egindako terapien barruan:

- Animalien laguntzarekin egindako interbentzioen proiektuak aurrera eramateko finantziario publiko edo pribatuaren deialdiak bilatu eta aurkeztu. Honekin batera, proiektuak eta aktibitateak diseinatzea, planifikatzea, gauzatzea eta ebaluatzea.
- Interbentzio mota honen inguruko komunitatearen baliabideak ezagutu eta ezagutaraztea.
- Animalien laguntzarekin egindako interbentzioak burutzen dituen aditu moduan interbentzioak aurrera eramatea. Kasu honetan, gizarte langileak egindako animalien laguntzarekin egindako interbentzioa eremu psikosozialean garatuko da.
- Irakaskuntza eta ikerketa arloan jardutea.

Animalien laguntzarekin egindako interbentzioek gizarte langintzari egin diezaioketen ekarpenak anitzak dira. Banakako gizarte langintzari dagokionez, animaliak eta profesionalak erabiltzailearekin modu indibidualean lan egin dezake zehaztutako helburuak jarraituz. Hala nola, animaliak gustuko dituen erabiltzailea eta hitz egitea asko kostatzen zaiona, gizarte langilearekin egindako elkarrizketa batean animalia bat presente egon daiteke erabiltzailearen erosotasuna eta bien arteko interakzioa handituz. Pertsonak gure beharrak asebetetzeko beste pertsonekin harremanak izaten ditugun moduan, animalia eta pertsona baten arteko harremanak ere gizakion behar psikologiko, sozial eta fisikoak asebeste dezakete (Ansodi, Guerrero eta Siurana, 2015, 58. or.). Gizarte langileak horretaz baliatu daitezke interbentzioaren helburuak lortzeko.

Taldeko gizarte langintzari dagokionez, taldearen funtzionamendu soziala hobetu dezake, hau da, animalia baten laguntzak edo presentziak taldeko helburuak lortzea erraztu dezake.

Gizarte langintza komunitarioari erreparatzean, animaliek eta profesionalak komunitate horren ongizatea sustatu eta beharizanak asebate ahal dituzte komunitatearen baitan dauden baliabideen kudeaketa egokia eginez.

Orokorrean, gizarte langintzaren maila desberdinetan burututako interbentzio desberdinetan animalia baten laguntza izatea interbentzioaren helburuak lortzeko erraztuko duen laguntzailea da. Animaliak eskaintako egoeraz baliatuz, burutu nahi den interbentzioa erraztu, bideratu edo burutu daiteke. Lehen aipatu bezala, argi eduki behar da animalia ez dela erreminta, baizik eta interbentzioa erraztuko duen laguntzailea. Hortaz, helburuetako bat animalia honen ongizatea babestea eta bermatzea beti izango da.

Kolektibo eta arazo desberdinei erreparatuta, animalien laguntzarekin egindako interbentzioak aplikatzeko aukera sorta anitza zabaltzen da: adinduak (isolamendua eta bakardadea, harreman sozialak, kontaktu fisikoa, mugikortasuna, ...); arazo sozial arriskuan dauden adingabeak (loturaren sorrera, enpatia, erantzukizuna, gaitasun sozialak, garapen emozionala, ...); aniztasun funtzionala (onarpena, enpatia, erantzukizuna, estimulu sentSORIALA, kontaktu fisikoa, ...); ezgaitasun fisikoa (manipulazioa, motrizitatea, oreka, ...), eta orokorrean animalia autoestimua eta konfiantzaren sustatzailea erabiltzeko (Yagüe, 2017, 35. or.).

Animaliaren laguntza erabiltzailearen beharrei modu egoki batean egokituko den ala ez alde zuzenetik jakin beharrekoa da. Erabiltzailearen egoera eta ezaugarrien arabera animalia laguntza egongo den ala ez zehaztuko du gizarte langileak. Erabiltzaileak animalia beldurra edota alergia baldin badiu ez da animalia batekin interbenituko, esaterako.

5. Analisia

Analisiaren bitartez, ikerketa bideratzen duen marko teorikoa eta Psicoanimal, Biak Bat eta Gure Sustraiak elkarteei egindako elkarrizketen bidez ateratako informazioaren azterketa egin nahi da. Horretarako, lanak aztertzen dituen gai desberdinak desberdinduko dira: animalien onurak, gizarte langilearen papera eta teoriaren eta ikerketen beharra, alegia.

5.1. Animalien laguntzarekin egindako interbentzioen onurak

Marko teorikoan azaldu bezala, animalien eta gizakion arteko harremana denboran zehar aldatzen doan eta etengabeen elikatzen eta aberasten dagoen harremana da. Testuingurua, garaia eta beste hainbat faktoreek bi izakien arteko harreman mota zehazten dute baita honen helburua eta funtzioa ere. Gizarte bakoitzak dituen kulturaren arabera animalienaganako tratua, sinesmenak, hautematea, erabilera etab. desberdinak izanen dira. Indiaren kasuan, txakurrei urtero *Tihar* izeneko festa bat egiten diete ohoratzeko, beste kasu batzuetan, ordea, txakurrak etxe bateko segurtasuna mantentzeko edota ehizarako erabiliak izanen dira (Pulgarin eta Absalon, 2016, 224. or.).

Animaliei ematen zaien erabilgarritasuna alde batera utzita, animaliekin sortzen den harremana aztertuko da. Wilson eta Kellert zientzialarien eskutik (ikusi Wilson, 1984; Kellert & Wilson, 1995), biofiliaren hipotesiaren bitartez gizakiok natura eta beste izakiengan ditugun harremanen eta loturen beharra baieztatu zen. Honekin batera, Sable-ek (Díaz, 2014, 167or.-an aipatuta) zehaztutako loturaren teoriari erreparatu behar da gizakiak beste gizakiekin harremana eta kontaktu fisikoa izateko beharra azpimarratzen duena. Gizakiok harreman fisikoa eta emozionala izateko beste figura batzuk hautatzen ditugu babes fisikoa eta psikologikoa jasoko dugulakoan. Honekin batera, Bowlby zientzialariak etologiari egindako ekarpenak kontuan izan behar dira, zeintzuk lotura hauen beharraren oinarrian gertutasun fisiko eta emozionala dagoela azaltzen duten. Lotura sortutako figura gurasoa, emaztea, lagun mina edota animali bat izan daiteke.

Baina pertsonen eta animalien arteko harremana edo lotura anitza izan daiteke; hala nola, jarraitutasun luzez eta interakzio askoko lotura afektiboan oinarritutako harremana edota erabilgarritasunean oinarritutako harremana.

Gizakiaren eta animalia-artearen arteko harremana egoteko lau printzipio zehazten ditu Katcher zientzialariak: segurtasuna, intimitatea, kidetasuna eta konstantzia (Gutiérrez, Granados eta Piar, 2007, 169. or.-ean aipatuta). Honekin batera, norbanakoaren ikasketa prozesuarengatik baldintzatuta egongo da. Hau da, norbanakoaren sozializazioak animaliekin sortutako harremanak baldintzatuko ditu. Brickel zientzialariak (1985) animaliekin sortutako binkulazio ikasketa prozesua familia testuinguruan kokatzen du, hau da, jaiotzen garenetik gure testuinguruan dauden animaliekin sortzen ikasten dugu.

Hortaz, animalien eta pertsonen arteko loturaz baliatu gaitzke norbanakoaren onurak lortzeko. Pet Ownership Global Gfk survey 2016an 22 herrialde desberdinei eginiko elkarrizketen bitartez, munduko biztanleriaren erdia baino gehiagok (%57-a) maskotaren bat zeukala frogatu zen (4. grafikoa).

Maskotak edukitzea eta lotura izatea oso ohikoa da, munduko pertsonen erdia baino gehiagok bere animalia batekin bizi da. Beraz, animaliek ematen dizkiguten onura anitzez baliatu gaitzke. Onura hauek ustiatzen dituzten erantzunik handiena animalien laguntzarekin egindako interbentzioak ditugu. Interbentzio hauen berezitasuna animalia-artearen figura eta presentzia izanen da. Adibidez, Biak Bat elkartearen psikologoak zehazten duenez: *“hace que aumenten muchísimo el nivel de atención; te gusten o no te gusten los animales, tu atención se va a dirigir hacia ese animal o animales, y eso tú lo puedes trabajar para tus objetivos. Aumenta mucho la motivación también y lo que surge es que la implicación del usuario sea mucho mayor. Cuando estás motivado, te implicas y eso para cualquier tipo de intervención en terapia creo que es fundamental”* (3.eranskina, 57. or.).

Martínez-ek (2008, 122. or.). aipatzen duen moduan, interbentzio hauen helburua ez da beste interbentzioak ordezkatea, baizik eta osagarriak izatea. Esku-hartzeen helburu diren protagonisten beharrak asetzea eta ongizatea bermatzeko beste bidea, beti ere erabiltzailea interbentzio mota horietara egokitzen den edo ez kontuan harturik. Biak Bat elkartearen psikologoak azaltzen duen moduan, hauen helburua ez da mundua txakurzalea bihurtzea, baizik eta pertsonen bizi kalitatea hobetzea. Beraz, kasu batzuetan

erabiltzailearen ezaugarriak edo egoera dela eta animali baten laguntzarekin esku-hartzea egitea ezinezkoa izango da.

Martinez-ek (2008, 132.or.) animalien laguntzarekin egindako interbentzioen onuren artean hainbat gailentzen ditu. Hasteko, enpatia; pertsona gehienok animaliekin identifikatzen garelako. Bestetik erabiltzaile eta profesionalaren arteko komunikazioaren prozesua erraztea. Honen adibide daukagu animalien laguntzarekin egindako interbentzioen aitzindari den Levinson ikertzaileak 1953. urtean bere txakurrarekin egindako interbentzioa. Levinson-ek bere txakurra Jingles-en presentzia izan zuen komunikatzeko arazoak zituen erabiltzaile batekin egindako interbentzio batean eta erabiltzaileak txakurrarekin askoz erosoagoa sentitzen zen, bere komunikazioa erraztuz eta areagotuz (Martínez, 2008, 125. or.-an aipatuta). Adibide honen bitartez sozializazioa eta estimulu mentala errazten eta aktibatzen direla ikusi daiteke.

Bestetik, animaliekin izandako kontaktu fisikoak emandako onurak oso nabariak dira. Hala nola, Katcher-ek zehaztu zuenez, presio arteriala, kolesterola eta triglizeridoak murrizten ditu (Yagüe, 2017, 31or.-an aipatuta). Gure sustraiak elkartearen gizarte langileak animalien laguntzarekin egindako interbentzioen onurak honela zerrendatzen ditu: *“Talde sentimendua barneratzen da, auto-kontrola hobetzen du, enpatia garatu egiten du, jokabide afektiboak sortzen ditu, autoestimua eta auto-konfidantza garatzen laguntzen du, gizarte gaitasunak garatzeko tresna onuragarria da, hizkuntza eta komunikazio gaitasunak lantzen dira, estimulazio multisensoriala landu egiten da...”* (4. eranskina 64. or.).

5.2. Gizarte langilearen papera

Dakigunez, gizarte langintza profesioari eremu soziala dagokio. Komunitate, talde edo indibidual moduan burututako esku-hartzeen helburua protagonisten ongizatea eta beharrak asetzea da. Gaitán-ek honela zehazten du:

“El Trabajo Social engloba al individuo y al mundo social con el que está en relación, es decir, al ser humano en relación social, tratando de prevenir o evitar conflictos, así como restablecer el equilibrio deteriorado

o de conseguir su mantenimiento. Por ello, lo específico del Trabajo Social es su enfoque integral y totalizador de las necesidades de la persona, como ser individual y como ser social, y de los conflictos que se producen en la interacción de la persona y su medio” (Díaz, 2003, 515. or.-an aipatuta).

Hortaz, interbentzio mota hauek garatutako gizarte langileen papera eta funtzioa arlo psikosozialean garatuko da arlo sozialeko onurak lortuz. Gizarte langileak ezin izango ditu terapiak edo hezkuntzako aktibitateak burutu, animaliekin egindako terapien eremua psikologiako profesional bati dagokiolako eta hezkuntza aktibitateetan, aldiz, hezkuntza arloko profesionalari. Biak Bat elkartearen psikologoak honela aipatzen du: *“Un trabajador social o un educador social, yo considero que no podría hacer terapia como tal, podría hacer una intervención psicosocial”* (3. eranskina, 55. or.).

Interbentzio mota hauek garatzeko talde multidiziplinarioaren beharra goraipatzen da; animaliekin egindako esku-hartzeak anitzak izan ahal izateko. Baina profesional bakoitzak dagokion eremuan lan egin behar du eta bere profesionaltasun eremutik kanpo zehaztutako helburuak lortzeko interbentzioak ez dira bere konpetentziak izango. Biak Bat elkarteko psikologoak profesional bakoitzak esku-hartu beharreko eremuaren mugak azpimarratzen ditu: *“el poder diferenciar, y el poder respetarnos y hacer cada uno el trabajo que le corresponde. (...) hay mucho intrusismo (...) claro al final es muy complicado tener ese tipo de expertos, psicólogos, fisioterapeutas, e... lo que sea, psicologopeda con un técnico, adiestrador eh... y lo que sea, con esa formación, con perro entrenado adecuadamente, llevar una intervención de manera adecuada con un ratio de usuarios adecuado”* (3. eranskina, 54.or.).

Gizarte langilearen kasuan, interbentzio honetan burutu dezakeen esku-hartzea zuzena edo zeharkakoa izan daiteke. Zeharkako interbentzioak erabiltzaileen aurrean egiten ez diren esku-hartzeei egingo die erreferentzia. Hala nola, hitzarmenak burutzea, subentzioen eskariak egitea, beste zerbitzuekin koordinazioa, etab. Gure Sustraiak elkartearen gizarte langileak honela aipatzen du: *“nire kasuan, zuzenean egoteaz gain, burokrazia aldetik ere lan*

egiten dut. Pertsonak bere bizian dituen beste errekurtsoekin harremanetan jartzea, adibidez” (4. eranskina, 65. or.).

Esku-hartze zuzenei dagokionez, arlo sozialeko gaitasunak eta beharrei aurre egiteko interbentzioak izango dira, beti ere animaliaaren hezitzailearekin batera, baita interbentzio hauek behar duten formakuntzarekin ere. Psicoanimal elkartearen zuzendariak bere elkartearen barruko gizarte langileen esku-hartze zuzena goraiatzeko du. Beraren aburuz, gizarte langileek bere erabiltzaileen arlo soziala lantzen dute animalien laguntzarekin egindako interbentzioen bitartez. Talde multidisziplinarrak osatutako profesional batzuk erabiltzailearen eremu emozionala, okupazionala eta psikologikoa lantzen dute gizarte langileek eremu soziala lantzen duten bitartean, honela, erabiltzaileen eremu edo testuinguru desberdinak batera lantzen dira erantzun integrala emanez. Gure sustraiak elkartearen gizarte langileak arlo sozialean zerbait aldatzeko edo hobetzeko dagoenean interbentzio zuzenetan parte hartzen duela aipatzen du. Biak Bat elkartearen psikologoak ere ideei honekin bat dator gizarte langileek esku-hartze zuzena onura sozialak lortzeko burutu ahal duela aipatzean.

5.3. Teoria eta ikerketaren beharra

Espanian, osasun eremu eta arlo sozial desberdinetan burutzen den animalien laguntzarekin egindako interbentzioek ibilbide motza daukate; Estatu Batuekin konparatzean, adibidez, praktikaren eta teoriaren aldetik aurreratuagoak daude. Hortaz, definitzeko prozesuan dauden esku-hartzeak dira, bermatze prozesuak baldintzatzen duen indar gune eta mugekin batera.

Nahiz eta interbentzio mota hauen onurei buruzko ikerketak egin, ikerketa hauen emaitzak zalantzan jartzen zituzten beste ikerketa batzuk kontrajarri dira. 80-ko hamarkadan esku-hartzeen onurak zalantzan jartzen zituzten hainbat ikerketa plazaratu ziren. Oihartzun handiena Beck-ek eta Katcher-ek (1984) egindakoak izan ziren; momentura arte argitaraturiko ikerketa guztiak aztertu eta zalantzan jarri zituzten. Errebisio hauen konklusioa ikerketen interpretazioak subjektibotasunean eta orokortu ezin diren istorio anekdotikoetan oinarritzen zirela izan zen.

Gaur egun, animaliekin egindako interbentzioak esparru eta kolektibo ezberdin eta anitzekin egin dira eta emaitzak positiboak izan arren, azterketak egiteko erabilitako metodologiak zalantzan jartzen dira eta, beraz, ikerketen errepikakortasuna nahiz emaitza positiboak orokortuak izateko ahalmena zalantzan jartzen da. Esku-hartzeen metodologia zehatzaren falta leporatzen zaizkie askotan egindako ikerketei, interbentzioek daukaten emaitza positiboak gizakiontzat zalantzan jarriz (Yagüe, 2017, 16-17. or.).

Biak Bat-eko psikologoak zientifikotasun eta ikerketen beharra azpimarratzen du: *“es verdad que cada vez hay más estudios ¿no? Lo comentábamos antes sobre intervenciones asistidas con animales no, pero sí que es cierto que son escasos todavía. O sea se va avanzando, cada vez se hacen más pero es necesario tener mucha más base científica para que haya más solidez”* (3. eranskina, 51. or). Psicoanimal elkarteak honekin bat eginen du eta horregatik elkarteak formakuntza desberdinak aurrera eramaten ditu baita unibertsitateekin ikerkuntzak burutzeko elkarlana sustatu ere. Hala nola, animalien etologiari buruzko ikastaroa, animalien laguntzarekin egindako interbentzioen ikastaroa, etab.

Hala ere, Martos-ek, Ordoñez-ek, Fuente-k eta García-k (2015) zehazten dutenez, animalien laguntzarekin egindako interbentzioak profesionalen eta ikasleen interesa esnatzen ari dira. Espainian, interbentzio mota hauek burutzen duten entitateek ez dute ikerkuntza eta argitalpena lehenetsan moduan ipintzen eta entitate bakar batzuk ikerkuntzara bideratzen dira. Bi arrazoi gailentzen dira; batetik, entitate gehienak pribatuak direla eta hortaz, bere gastuak ordaindu behar dituztela garestiak diren ikerkuntzetara ez bideratuz. Bestetik, lehenengoari lotuta dagoena, unibertsitate eremuan ikerkuntzak oso eskasak dira hezkuntzan honen inguruko materia eta espazioa txikia delako (7. or.).

Honekin lotuta, entitate publikoei subentzioak eta hitzarmenak eskatzerako orduan sortzen diren zailtasunak daude. Entitate publikoen babesa izateko ikertutako eta frogatutako emaitzak aurkeztu behar dira. Biak Bat elkarteak emaitzen frogagarritasunen ondorioz sorturiko tira-birak azpimarratzen ditu: *“Es*

cierto que muchas veces al solicitar algún tipo de patrocinio, subvención, convenio, ayuda, ... te exigen; demuéstremelo en el papel ¿no? Dime donde hay una demostración científica que avale esto" (3. eranskina, 51. or.). Psicoanimal elkartearen kasuan, subentzioak eskatzeko eta lortzeko zailtasunak azpimarratzen dituzte. Animalien laguntzarekin egindako esku-hartzeen bitartez lan egiten duten erakundeen indibidualtasuna eta elkarlan falta sumatzen dute eta honen ondorioz, eremu honetan lan egindako erakundeak anitzak izanen dira gobernuko subentzio eskasak lortzeko zailtasunak izanez. Psicoanimal elkartearen zuzendariak, egoera honen aurrean Espainia mailako animalien laguntzarekin egindako interbentzioen inguruan lan egiten duten elkarte guztiak ordezkatzeko lukeen entitate baten osaketaren beharra azpimarratzen du.

Hala ere, aipatu moduan, esku-hartze mota hauen garapena ematen ari da bai praktikan eta baita ikerkuntzan. Honekin batera, entitate publikoen babesa irabazten joango dira denborarekin seguruenik. Biak Bat eta Gure Sustraiak elkarteek entitate publikoaren babesa goraiatzeko dute. Gure Sustraiak elkartearen kasuan, elkarteak sortu zenetik izandako babesa eskertzen dute. Biak Bat elkarteak honela aipatzen du: *"vemos que cada vez hay más apoyo de las instituciones tanto públicas como privadas, y sí que nos encontramos que cada vez hay una mayor predisposición a... a intervenciones diferentes ¿no? Como pueden ser estas, cada vez se hablan más de ellas, cada vez están más demostrados los beneficios que tienen entonces cada vez la gente está más abierta y confiada en este tipo de intervenciones"* (3. eranskina, 51. or.).

6. Ondorioak

Lan honen helburu nagusia gizarte langintza profesioaren eta animalien laguntzarekin egindako interbentzioen arteko harremana ikertzea da; interbentzio mota hauetan gizarte langileak garatu dezakeen papera zehaztea eta funtzioak aztertzea. Honekin batera, gizarte langintzaren objektu diren arazo sozial eta kolektibo desberdinei egindako ekarpenak zehaztu nahi dira; hau da, arazo sozial desberdinen aurrean animalien laguntzarekin egindako interbentzioen praktikak ikustaraztea. Horretarako, animalien laguntzarekin egindako interbentzioen ezaugarriei buruzko ikerlan txikia eta gizarte langintzarekin duen harremanaren ikerketa egin da. Animalien laguntzarekin egindako interbentzioen onurak gizarte langintzarekin burututako harremana zehazteko ardatza izan dira.

Interbentzio mota hauetan gizarte langintzak izan ahal duen espazioa eta funtzioa zehaztu nahi izan da. Hala ere, lanaren mugak eta lagin murriztuak kontuan izan behar dira eskala txikiko ikerkuntza dela aitortuz.

Animalien laguntzarekin egindako interbentzioek animalia- eta pertsonaren arteko interakzioen bitartez sorturiko onura fisikoetan, psikologikoetan eta sozialetan oinarritzen dira. Interakzio hauek animalia- eta pertsonaren harremanen eta loturen islada izan daitezke; Wilson-ek baieztaturiko biofiliaren hipotesian oinarriturik, gizakiok naturarengan eta bizitzarengan berezko afinitatea sentitzen baitugu (Fernández de Arróyabe-k aipatuta, 2018, 20. or.). Gaur egun, animalien eta pertsonen arteko interakzioen bitartez sortutako onurak zientifikoki frogatzen dituzten ikerketak aurkitzen dira. Onurak fisikoak, psikologikoak zein sozialak dira; onura hauek enpatia sustatzen dutela frogatzen duten ikerketak, sozializazioa, onarpena, animaliekin kontaktua izatean pertsonaren erlaxazioa, presio arterialaren jaitsiera, etab. Aitzitik, onura hauek ahalbidetzen duten interakzioarekin batera animalia- eta pertsonaren arteko harremana atxikimenduzko loturan oinarritzea beharrezkoa da.

Animalien laguntzarekin egindako interbentzioek pertsonaren eta animalia- eta pertsonaren arteko interakzioen ondorioz sortutako onura hauek aprobetxatuz, pertsonen ongizatea lortzea edo erraztea helburu dute. Osasun eta hezkuntza eremuan baita arlo sozialean ere lan egiten duten profesionalen esparru berria bihurtu

da. Gizarte langintzaren kasuan, egungo gizarte konplexuari aurre egiteko duen erantzukizuna kontuan izanda (krisiaren ondorioz sortutako prekarietateri edota gizarte bazterketari, esaterako) animalien laguntzarekin egindako interbentzioak gizarte langintzaren erronka berriei aurre egiteko lan eremu berria bihurtu daiteke.

Hala ere, esku-hartze hauen kontzeptuen anbigutasunak eta praktikan sistematizazio faltak gaur egun dituzten ahuleziak eta hutsuneak islatzen dituzte. Pertsonaren eta animalia-aren arteko interakzioek sortutako onurak frogatuak izanda ere, askotan oinarri anekdotikoak dituztela atxikitzen zaie. Beste batzuetan, ordea, burututako ikerketen laginak komenigarritasunaren arabera erabakita daude eta diseinuaren akatsak ugariak dira ikerketari baliagarritasuna kenduz (Martos, Ordoñez, Fuente eta García, 2015, 7. or.).

Animalien laguntzarekin egindako interbentzioak gizarte langintzan okupatu dezaketen espazioa eta gizarte langileak izan ahal dituen funtzioak eta papera ikustarazi nahi izan da. Gizarte langintzak pertsonen bizitzaren harreman eta lotura anitzetik sortzen da eta espazio hori bere lan egiteko iturria dela kontuan harturik, pertsonaren, taldearen edo komunitatearen ikuspegi holistikoa besarkatzen du. Hortaz, esku-hartu nahi duenaren norabide anitzeko ikuspegia aprobetxatuz eta diziplinarteko lanean oinarrituz, esku-hartze eredu berriak proposatzeko gaitasuna izan dezake; begirada holistikoak profesional desberdinen elkarlana eskatzen baitu.

Gizarte langileak maila desberdinetan burutu dezakeen interbentzio sozialaren barruan, motibazioa eta interesa piztuko duen laguntzaile berria izan dezake, animalia, alegia. Interbentzio hauek eragiten dituzten onura sozialak gizarte langileen eremuaren eta espazioaren barruan kokatzen dira. Hortaz, animalien interbentzioen bitartez gizarte langilearen helburua den onura sozialak lortu ditzake. Kontuan izan behar da gizarte langileak animalien laguntzarekin egindako interbentzioetan espezializatua edo aditua izan behar dela esku-hartze zuzena egiteko, hau da, esku-hartze zuenean animalia-aren laguntzarekin interbenitzeko.

Gizarte langileak interbentzio mota hauetan espezializatua ez baldin badago, harremana izango duten zeharkako esku-hartzeak burutu ahal izango ditu. Hala

nola, animalien laguntzarekin egindako interbentzioen proiektuak aurrera eramateko finantzazio publiko edo pribatuaren deialdiak bilatzea edo aurkeztea; interbentzio mota honen inguruko informazioa ezagutaraztea; proiektuak diseinatzea, etab.

Hortaz, gizarte langilearen papera interbentzio mota hauetan garatu daitekeela zehazten duen hipotesia berretsi daiteke. Animalien laguntzarekin egindako interbentzioetan aditua edo espezializazioaren arabera zeharkako edo zuzeneko funtzioak desberdinduko dira; baina arlo sozialean onurak eskuratu daitezkeela kontuan izanik, gizarte langileen jarduteko modua edo esku-hartze mota izan daiteke. Hala ere aipatu beharra dago animalien laguntzarekin egindako terapien kasuan osasun arloko profesional bati dagokiola; osasun arloko helburu zehatzak finkatzen baitira. Animalien laguntzarekin egindako hezkuntza, aldiz, hezkuntza arloko profesional baten eremua da. Gizarte langileari arlo sozialean buruturiko animalien laguntzarekin egindako interbentzioak dagozkio.

Honekin batera, animalien laguntzarekin interbentzioak gizarte langintzaren profesioaren erraztatzailea edo laguntzailea konfirmatzen duen hipotesia baieztatzen da. Kontuan izan behar da gizarte langileak lortu nahi duen helburua, baita interbentzioa burutuko duen eremua eta testuingurua ere; interbentzio mota hauek burutzeko kasu egokia dela uste baldin badu esku-hartze mota hauek gizarte langilearen lanaren erraztatzailea bihurtu daitezke.

Gizarte langintzako objektu diren arazo sozialen kasuan, animaliekin egindako interbentzioek izan dezaketen eragina eta jokatu dezaketen papera aztertu nahi izan da. Gizarte langintzako helburuetako bat arazo sozialei aurre egitea izan da eta honekin hertsiki lotuta doaz arazo sozialak pairatzen dituzten kolektiboak. Kolektibo hauek gizartearen faktore eta arazo sozialen ondorioz zaurgarritasun edo arrisku egoeran aurkitzen diren kolektiboak dira. Animalien laguntzarekin egindako interbentzioetan arazo sozial hauek pairatzen dituzten kolektiboekin lan egiten dela ikusi daiteke. Espainian egindako ikerketa kontuan harturik, aniztasun funtzionalaren kolektiboa interbentzio mota hauek aplikaturiko kolektibo ohikoa edo arrunta dela frogatu da kolektibo horretan egindako esku-hartzeen kopurua %93-a izanik. Honekin batera, gizarte

bazterketan, gerontologian edota espetxeetan burutzen dira interbentzioak baita ere (Martos, Ordoñez, Fuente eta García 2015).

Yagüe-k (2017) kolektibo eta arazo desberdinei erreparatuta interbentzio hauek aplikatzeko aukera anitzak izendatzen ditu: adinduak (isolamendua eta bakardadea, harreman sozialak, kontaktu fisikoa, mugikortasuna, ...); arazo sozial arriskuan dauden adingabeak (loturaren sorrera, enpatia, erantzukizuna, gaitasun sozialak, garapen emozionala, ...); aniztasun funtzionala (onarpena, enpatia, erantzukizuna, estimulu sentsoriala, kontaktu fisikoa, ...); ezgaitasun fisikoa (manipulazioa, motrizitatea, oreka, ...), etab.

Hortaz, gizarte langintzaren objektu diren kolektiboetan interbentzio hauek aplikatzen diren heinean, arazo sozialei aurre egiteko esku-hartze mota baliagarria eta onuragarria dela hipotesia baieztatu daiteke baita ere.

Orokorrean, animalien laguntzarekin egindako interbentzioen oinarri teoriko eta ikerketa enpirikoen gabezia kontuan hartuta, gizarte langintza profesiotik burutu daitezkeen esku-hartzeak, eremuak, ekarpenak eta gizarte langilearen funtzioak aztertuak izan dira finkaturiko lanaren helburuak betez.

7. Proposamenak

Animalien laguntzarekin egindako interbentzioen sorreratik, esku-hartze hauek garaturiko eremuak eta aplikatutako kolektiboak anitzak izan dira. Hala ere, praktika hauen teorizazio faltak, baita metodologia zehatzen urritasunak ere esperientzia hauek anekdotikoak kontsideratzea eragiten dute. Onurak frogatzen dituzten ikerketen faltak animalien laguntzarekin egindako interbentzioen baliagarritasuna kolokan jartzen du. Honekin batera, eremu honetan lan egiten duten entitateen programa gutxi ikerkuntzara bideratzen dira. Kontuan izan behar da entitate gehienek duten profil pribatua eta ikerkuntzak duen kostu ekonomiko altua eta hortaz, entitateek ikerketak bere gain hartu ezin izana. Beraz, egin daitekeen lehenengo proposamen praktikoa, animalien laguntzarekin egindako interbentzioen eraginak aztertzeko ikerketak bultzatzearen beharra da; bereziki ikerketa erakunde publikoen kasuan, unibertsitatean adibidez.

Animalien laguntzarekin orain arte egindako interbentzioak nahikoak ez badira ere, animalien laguntzarekin egindako interbentzioen inguruan profesionalen eta ikasleen interesa handitzen doa eta gero eta gehiago dira animalia eta gizakion interakzioen inguruan egindako ikerketak eta honekin batera, animalien laguntzarekin egindako interbentzioen inguruko ikerketa teorikoak eta praktikoa (Martos, Ordoñez, Fuente eta García, 2015).

Animalien laguntzarekin egindako interbentzioak gizarte langintza profesioan jarduteko aukera izan daiteke pertsonak, taldeak edo komunitateak animaliekin dituzten interakzioen bitartez sortutako onurak aprobetxatuz. Hala ere, aipaturiko interbentzio hauen teorizazio faltak eta anbiguotasunak gizarte langintzaren zeregina eta gizarte langilearen paperaren garapenak zailtzen ditu. Gizarte langintzako eremuan animalien laguntzaz eginiko interbentzioak oso urriak dira eta gizarte langilearen papera ikertzea zaila suertatu da. Hortaz, egin daitekeen bigarren proposamen praktikoa, lehenengoarekin hertsiki lotuta dagoena, gizarte langintzaren munduaren barruan, bereziki EHUn, animalien laguntzarekin egindako gizarte langintza bultzatzea izan daiteke.

Animalien laguntzarekin egindako gizarte langintza bultzatzeak ez du ikerketa sustatzea inplikatzeko soilik (aurreko proposamenean azpimarratzen nuen

bezala), animalien laguntzarekin gizarte langileok banakoen, taldeen edo erakundeen eta komunitateen ongizatea nola hobetu dezakegun pentsatzea inplikatzeko du ere. Horretarako garrantzitsua izan daiteke gizarte langintza graduaren curriculumean animalien laguntzarekin egindako gizarte langintza sartzea, animaliekin garatu ditzakegun harremanen bidez banakoen, taldeen edo erakundeen eta komunitateen ongizatea hobetzeko moduak irakatsiz eta ikasiz. Beraz, kontsideratzeko moduko zerbait izan daiteke gizarte langintza graduan animalien laguntzarekin egindako gizarte langintza irakatsiko lukeen ikasgaia sortzea edo, bestela, jada existitzen diren ikasgaien gaitegien barruan animalien laguntzarekin egindako gizarte langintza sartzea. Honetaz aparte, maila apalago batean, animalien laguntzarekin egindako gizarte langintzaren inguruko tailerrak, hitzaldiak, ikastaroak, e.a. garatu zitezkeen fakultatean.

Espania mailan, nahiz eta animalien laguntzarekin egindako interbentzioen kurtso, espezializazio edota master anitzak egon, esku-hartze hauetan ikerketara bideratuta dagoen master ofizial bakarra dago. Interbentzio hauetan adituak izateko aukera anitzak daude baina interbentzio hauek dituzten ahuleziei eta anbiguotasunei aurre egingo dioten ikerkuntza enpirikoak burutzeko aukera instituzional bakarra dago. Martos-ek, Ordoñez-ek, Fuente-k eta García-k (2015) zehazten dutenez, animalien laguntzarekin egindako interbentzioen esparruan doktorego tesiak garatzeko aukera emango zuten master ofizialen gabeziak gaur egungo inbestigaziorako orientazio eskasaren arrazoia izan daiteke.

Honen ondorioz, anbizio handiko proposamena egitearren, Gasteizko Euskal Herriko Unibertsitate publikoaren gizarte langintzako fakultatetik esku-hartze berriei ekiteko aukera ematen duten animalien laguntzarekin eginiko interbentzioen inguruan ikertzeko proposamena luzatzen da. Interbentzio hauek arlo sozialean dituzten onura eta zereginak kontuan harturik, gizarte langintzatik esku-hartzeko aukera desberdina izanen da eta gizarte langileek esku-hartze hauen inguruko jakintzen berri izan behar dute, baita honen inguruko espezializazioa jasotzeko aukera ere. Eremu honetan lan egiten duten erakunde edo entitateen praktika eta formakuntza unibertsitateak dituen ikerkuntzarako bitartekariekin eta baliabideekin fusionatzen dituen hitzarmenak

beharrezkoak dira gizarte langintzako ikasleak eta profesionalak esku-hartze hauen berri izateko, baita espezializatzeko aukera izateko ere.

Gizarte langintzako fakultateak animalien laguntzarekin egindako interbentzioen inguruko master ofizial baten eskaintza egitean, esparru honetan falta den ikerkuntza enpirikoa eta teorizazioa garatzeko aukera egongo zen. Master horretan, adibidez, animalien laguntzarekin egindako gizarte langintzarentzat oinarritzekoak diren gauzak irakatsi eta ikasi zitezkeen⁷:

1. Arazo sozial zehatzak konpontzeko animalien laguntzarekin egindako esku-hartze programa egokiak garatzea, martxan jartzea eta ebaluatzea.
2. Arazo sozial zehatzak konpontzeko animalia egokienak zeintzuk izan daitezkeen zehaztea.
3. Animaliak nazioarteko ongizate estandarren arabera modu egokian zaintzen ikastea.
4. Gizakion eta animalien kontrako biolentzien artean egon daitezkeen loturak aztertu, bi biolentzia horien kontrako prebentzio programa egokiak garatuz, martxan jarri eta ebaluatuz.
5. Animalien ongizatearen aldeko argudioak eta animalien eskubideen aldeko teoria etiko nagusiak.

Honekin batera, gizarte langintzaren esparru berri bat aztertzeke aukera ematen zaie bai gizarte langintzako egungo irakasle zein ikerlariei, baita gaurko eta etorkizuneko gizarte langintzako ikasleei ere.

⁷Adibidez, Denver-eko unibertsitatean “Animalien laguntzarekin eginiko gizarte langintza” berezko tituluan (ikusita: <https://www.du.edu/socialwork/programs/oncampus/twoyear/certificates/aaswcertificate.html>, 2018/05/30-ean ikusita) edo Tennessee-ko unibertsitateko “Albaitaritza gizarte langintza” berezko tituluan (ikusita: <http://www.csw.utk.edu/certificates/vsw.htm>, 2018/05/30-ean ikusita) egiten duten moduan.

Bibliografía

Ander Egg, E. (1984). *¿Qué es el Trabajo Social?* Alicante: Gráficas Diaz.

Anderson, W.P., Reid, C.M., eta Jennings, G.L. (1992). Pet ownership and risk factors for cardiovascular disease. *Medical Journal for Australia*, 157, 298-301.

Ansodi, M; Guerrero, A. eta Siurana, S. (2015). Una intervención desde el Trabajo Social mediante la Terapia Asistida con perros en personas con esquizofrenia en un Centro de Rehabilitación Psicosocial. *Acciones Investigaciones Sociales*, 35, 36-61.

Bazalote, P. (1999). Animales de compañía y mejora de las relaciones interpersonales en un centro geriátrico. En Fundación Purina, *Animales de compañía fuente de salud. Comunicaciones IV Congreso Internacional*, 45-55. Barcelona: Fundación Purina.

Beck, A.M eta Katcher, A.H. (1984). A new look at pet-facilitated therapy. *Journal of the American Veterinary Medical Association*, 184, 414-421.

Bossard, C. M. (1944). The mental hygiene of owning a dog. *Mental hygiene*, 28, 408-413.

Brickel, C. M. (1985). Initiation and maintenance of the human-animal bond: Familial roles from a learning perspective. *Marriage and Family Review*, 8, 31-48.

Burcher, P. (1996). *Origen de los animales domésticos*. Medellín: Editorial Universidad de Antioquia.

Carrillo, S. eta Gutiérrez G. (2000). Attachment behaviour and comparative research: a critical essay. *Suma Psicológica*, 7, 51-63.

De Robertis, C. (2003). *Fundamentos del Trabajo Social. Ética y metodología*. Sevilla: Publicaciones Digitales.

Díaz Herráiz, E. (2003). Los ámbitos profesionales del trabajo social. Ander, Egg E. *Introducción al trabajo social*. (515.-554. or.). Madrid: Alianza.

Díaz, M. (2014). Interacción Humano-Animal: ¿Por qué la gente no ama a sus mascotas? *Revista de Psicología Gepo*, 5, 164-179.

Díaz, M. eta López, P. (2017). La oxitocina en el vínculo humano-perro: revisión bibliográfica y análisis de futuras áreas de investigación. *Interdisciplinaria*, 34, Helbidea: <http://www.redalyc.org/pdf/180/18052925005.pdf> (2018/03/05-ean begiratuta).

Fernández de Arróyabe, M. (2018). Proyecto de desarrollo de terapias asistidas por perros en el Consorci Sanitari de Terrassa. *Derecho Animal (Forum of Animal Law Studies)*, 9, 18-51.

Friedmann, E.; Katcher, A.; Lynch, J. eta Thomas, S. (1980). Animal Companions and One-Year Survival of Patients After Discharge From a Coronary Care Unit. *Public Health Reports*, 95, 307-312.

Fundación Affinity (2016). II Análisis científico del vínculo entre las personas y los animales de compañía. Resumen de resultados. Helbidea: http://www.fundacion-affinity.org/sites/default/files/documento/white_paper_segundo_estudio_vinculo_contigo_soy_mejor.pdf (2018/06/10-ean begiratuta)

Global Gfk survey (2016). Pet ownership. Helbidea: https://www.gfk.com/fileadmin/user_upload/country_one_pager/NL/documents/Global-GfK-survey_Pet-Ownership_2016.pdf (2018/06/12-an begiratuta)

Gorostiaga, A. eta Balluerka, N. (2007). *Ikerketa metodoak eta diseinuak Psikologian*. Donostia: Erein.

Gutiérrez, G.; Granados, D.; Piar, N. (2007). Interacciones humano-animal: características e implicaciones para el bienestar de los humanos. *Revista Colombiana de Psicología*, 16, 163-183.

IAHAIO International Association of Human-Animal Interaction Organizations (2018). IAHAIO White Papers. *The IAHAIO definitions for animal assisted intervention and guidelines for wellness of animals involved in AAI*. Helbidea: http://iahaio.org/wp/wp-content/uploads/2018/04/iahaio_wp_updated-2018-final.pdf (2018/05/02-an begiratuta)

Kellert, S. & Edward, W. (1995). *The Biophilia Hypothesis*. Washington: Island Press.

Kobayashi, Audrade M. (2011). Representaciones e imaginarios perrunos: desde Grecia hasta la conquista de América. *Revista Universum*, 26, 11-48

Kohs, S.C. (1966). *Las raíces del trabajo social*. Buenos Aires: Paidós.

Levinson B.M. (1972). Man, animal, nature. *Modern Veterinary Practice*, 53, 35-41.

Martínez Abellán, R. (2008). La terapia asistida por animales: una nueva perspectiva y línea de investigación en la atención a la diversidad. *Indivisa. Boletín de Estudios e Investigación*, 9, 117-143.

Martinez Abellán, R. (2009). Atención a la diversidad y terapia asistida por animales. Programas y experiencias en el medio penitenciario. *Revista educación inclusiva*, 2, 111-133.

Martos Montes, R.; Ordoñez Pérez, D.; Fuente Hidalgo, I. eta García Viedma, R. (2015). Intervención asistida con animales (IAA): Análisis de la situación en España. *Escritos de Psicología*, 8, 1-10.

Moix, M. (1991). *Introducción al Trabajo Social*. Madrid: Trivium.

Omeñaca, R.; Puyuelo, E. & Vicente, J. (2001). Explorar, jugar y cooperar. Barcelona: Editorial Paidotribo.

Páramo, P. eta Mejía, M.A. (2004). Los parques urbanos como oportunidades para la interacción de los niños con los animales. *Revista de Latinoamérica de Psicología*, 36, 73-84.

Perea, M. A.; López, J.; Tejada, A. eta Sarasola, J.L. (2014). Intervenciones asistidas por animales y calidad de vida: expectativas en estudiantes universitarios españoles. *Escritos de Psicología*, 7, 10-18.

Pulgarin N. eta Absalon J. (2016). Terapia asistida con animales: aproximación conceptual a los beneficios del vínculo humano – animal. *Reflexión*, 2, 221-228.

Savishinsky, J.S. (1993). Ideas predilecticas: La domesticación de los animales, la conducta humana y las emociones humanas. In A. Honori eta A.M. Beck (coords): *Los animales de compañía en nuestra vida. Nuestras perspectivas*. Barcelona: Fundación Purina. 135-155. or.

Serrano, B. (2007). Terapias de patologías humanas a través de animales. *Innovación y experiencias educativas* 11. Helbidea: https://archivos.csif.es/archivos/andalucia/ensenanza/revistas/csicsif/revista/pdf/Numero_11/BERNARDO_SERRANO_1.pdf (2018/06/14-ean begiratuta)

Virues Ortega J. eta Buela Casal, G. (2006). Psychophysiological Effects of Human-Animal Interaction: Theoretical Issues and Long-Term Interaction Effects. *Journal of Nervous and Mental Disorders*, 194, 52-57.

Wilson, Edward O. (1984). *Biophilia. The Human bond with other species*. Milano: Mondadori.

Yagüe Peguero, G. (2017). Intervención Asistida por animales (IAA) en Trabajo Social. Aproximación teórica para la intervención social. *Ehquidad International Welfare Policies and Social Work Journal*, 8, 11-42.

Zamanillo, T. eta Gaitán, L. (1991). *Para comprender el Trabajo Social*. Navarra: Verbo Divino.

Eranskinak

1. Eranskina

ENCUESTA SOBRE INTERVENCIONES ASISTIDAS CON ANIMALES (IAA).

Esta encuesta constituye un trabajo de investigación cuyo objetivo es conocer la situación de las Intervenciones Asistidas por Animales (Terapia, Actividades, Educación) en España a través los propios profesionales y entidades que trabajan en dicho ámbito. Las Intervenciones Asistidas con Animales (IAA) están experimentando en nuestro país un auge y expansión considerable que conviene identificar y cuantificar de manera que quede constancia de su desarrollo en el momento actual. Es por ello, que le agradeceríamos que conteste a las siguientes cuestiones, teniendo en cuenta que nuestro interés son los datos globales y tendencias sobre la IAA en España y que los resultados individuales obtenidos en esta encuesta son totalmente confidenciales y en la posible difusión los mismos ningún participante será identificado. Si está conforme con su participación en el estudio, rogaría que por favor, maque la casilla “Conforme” y prosiga con la encuesta.

Gracias por su colaboración.

(* Campo obligatorio)

Consentimiento informado *

Acepto participar en la presente investigación, dirigida a conocer el estado actual de las intervenciones asistidas por animales en España, y a que mis respuestas queden registradas informáticamente en un fichero mantenido por Rafael Martos Montes, profesor del Departamento de Psicología de la Universidad de Jaén. He recibido información sobre la finalidad de la investigación, así como datos de contacto donde realizar preguntas y/o ejercer mis derechos a la anulación y modificación de datos.

- Conforme
- No conforme.

Entidad a la que pertenece

Únicamente, si quiere hacerlo constar (no es obligatorio)

Localización (Ciudad y Comunidad Autónoma) ***Ámbito geográfico donde se ofrecen los servicios. ***

Pueden marcarse una o varias opciones.

- En la localidad donde se ubica la Entidad
- En localidades cercanas
- En la Comunidad Autónoma
- En todo el territorio nacional

¿Qué especies de animales son utilizadas? *

Pueden marcarse una o varias opciones.

- Perro.
- Caballo
- Gato
- Animales de granja
- Animales acuáticos
- Aves
- Otro:

¿Cuántos animales suelen participar en las IAA que lleva a cabo su entidad? *

1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 >10

○ ○ ○ ○ ○ ○ ○ ○ ○ ○ ○ ○

¿Cuántos profesionales integran la entidad? ***¿Cuál es la formación requerida a los profesionales que desarrollan su trabajo en la entidad? ***

Especificar el nivel de estudios de los profesionales. Pueden marcarse una o varias opciones.

- Educación Primaria
- Educación Secundaria
- Estudios Superiores (Universidad y Grados Formativos Superiores)

¿A qué áreas de intervención pertenecen los profesionales implicados en la IAA? *

Pueden marcarse una o varias opciones.

- Psicología
- Fisioterapia
- Terapia ocupacional
- Trabajo Social
- Educación (Magisterio, Educación Social, Pedagogía...)
- Medicina
- Veterinaria
- Enfermería
- Adiestramiento animal (guías, entrenadores...)
- Otro:

¿Los profesionales implicados en la IAA tienen formación específica en este campo? *

- Todos
- Alguno/s

INTERVENCIÓN ASISTIDA CON ANIMALES EN ESPAÑA

10

- Ninguno

En el caso de haber recibido formación específica en IAA, ¿dónde se realizó? *

Pueden marcarse una o varias opciones.

- Entidades privadas (Empresas de adiestramiento, formación, intervención...)
- Pública (Universidades u otros centros públicos)

¿La propia entidad ofrece cursos de formación en el ámbito específico de la IAA? *

- Sí
- No

En el caso de ofrecer formación sobre TAA, ¿cuántos profesionales han sido formados por su entidad? *

Haga una estimación aproximada por año.

¿Qué tipo de intervenciones se llevan a cabo por la Entidad? *

Pueden marcarse una o varias opciones.

- TAA (Terapia Asistida por Animales)
- AAA (Actividades Asistidas por Animales)
- EAA (Educación Asistida por Animales)
- Otro:

¿Cuáles son los ámbitos de actuación de la entidad? *

Pueden marcarse una o varias opciones.

- Gerontológico
- Psicológico/psiquiátrico
- Educativo
- Discapacidad física y/o Neurorrehabilitación
- Integración Social
- Hospitalario
- Penitenciario
- Otro:

¿Cuántas personas se benefician de los programas desarrollados por su entidad? *

Haga una estimación aproximada por año.

¿Cuántos programas de IAA desarrolla su entidad? *

Haga una estimación aproximada por año.

¿Alguno/s de estos programas han sido enfocados como estudio de investigación? *

- Todos
- Alguno/s
- Ninguno

¿Han sido publicados? *

- Todos
- Alguno/s
- Ninguno

¿Qué extensión han tenido los programas de IAA desarrollados por su entidad? *

Haga una estimación media (meses).

¿Han sido reeditados estos programas? *

- Todos
- Algunos
- Ninguno

En caso de no haber sido reeditados, ¿Cuál fue el motivo? ***¿Cuál es la principal fuente de financiación de la Entidad? ***

- Financiación pública (Subvenciones, proyectos en entidades públicas...)
- Financiación privada (Fundaciones, proyectos empresariales...)
- Voluntariado (prestación de servicios altruista)

2. Eranskina

Biak Bat elkarrizketaren gidoia

Kaixo! Oihane naiz, Gizarte langintzako 4.mailan dagoen ikaslea eta aurten, Gradu Amaierako Lana egiten ari naiz. Animalien laguntzarekin egindako interbentzioen gaia aukeratu dut eta nire lanaren helburu nagusienak, batetik, gizarte langileok eremu honetan izan ahal dugun papera aztertzea da eta bestetik, animalien laguntzarekin egindako interbentzioek arazo sozialei eta pertsonalei aurre egiteko jokatu dezaketen papera aztertzea da.

Horregatik, oso interesagarria iruditzen zait zuen elkarteko profesional bati elkarrizketa egitea. Elkarrizketa honekin lan egiteko, grabatzeko beharra daukat. Ados zaude?

❖ Hasteko, elkartearen sorreraren inguruan hitz egitea gustatuko litzaidake.

-Noiz eta nola sortu zen elkartea?

-Zeintzuk izan ziren elkartea sortzeko arrazoiak?

-Zeintzuk dira gaur egun elkarreak jarraitzen dituen helburuak?

-Garai horretan animalien laguntzarekin egindako interbentzioen hedapen txikia zela imaginatzen dut.

- Nola hedatu edo heldu zineten jendearengana? (herriko pertsonak elkartea ezagutzea, egiten zenituzten programak, ...)
- Herritarrek zer pentsatzen zuten animalien laguntzarekin egindako interbentzio berriei buruz?
- Interbentzio berri hauen aurrean, jendeak nolako jarrera zuen?

❖ Animalien laguntzarekin egindako interbentzioen inguruan, ezjakintasun handiak daude eta esku-hartze hauen onurak frogatzeko zientifikotasun falta egonen da. Horregatik, esku-hartze hauen inguruan gizartean aurreiritzi asko sortzen dira.

- Zer egiten duzue aurreiritzien kontra?

- Nola erakusten diozue biztanleriari zuen lanaren baliagarritasuna eta eraginkortasuna?

- ❖ Kolektibo desberdinetara bideratuta dauden hainbat programa desberdin dituzuela ikusi dut; adinduei bideratzen dena, aniztasun funtzionala duten umeentzako programak, genero indarkeria bizi duten gazteentzako esku-hartzeak, ... Honekin batera, aktibitateak, terapiak, formakuntzak eta sentsibilizazio programak, ... egiten dituzue.

- Kolektibo bakoitzean, modu orokorrean, ze onurak ikusi dituzue? (Ze onurak adingabeengan, adinduengan eta genero indarkeria pairatu duten gazteengan)

- Badago arrazoen bat kolektibo zehatz horietara (adinduak, aniztasun funtzionala eta genero indarkeria) programak bideratuak egoteko? Baliteke, animalien presentzia kolektibo horietan duen eragina handiagoa izatea edo beste arrazoiren bat.

- Nola egiten duzue lan? Profesional bakoitzak ze paper eta funtzioa betetzen du elkartean?

- Gizarte langile baten funtzioa elkarte honetan zein izango zen?

- ❖ Oker ez banago, txakurrekin egiten dituzue interbentzio gehienak (denak?). Txakurrekin egindako terapien kasuan:
 - Zeintzuk uste duzu direla terapia mota honen alde positiboak ohiko terapia konbentzionalekin alderatu ezkerro?

 - Eta zeintzuk uste duzu direla terapia mota honen alde negatiboak ohiko terapia konbentzionalekin alderatu ezkerro?

- ❖ Oker ez banago, Altsasuko, Olaztiko eta Ziordiako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak 2017. urtean elkartearekin kolaborazio hitzarmena sinatu zuen, herri horietan bitarteko gutxi dituzten familiek, animaliekin egindako esku-hartzeetan parte hartzeko gaitasuna izan dezaten diru laguntzak emanaz.

- Zein da hitzarmenaren inguruan egiten duzuen balorazio orokorra?
- Nola ikusten duzue administrazio publikoen inplikazioa/interesa animaliekin egindako esku-hartzeei dagokienez?
- Harrera ona daukate animaliekin egindako esku-hartzeek eremu politikoan?
- Administrazio publikoei zerbait eskatzekotan, zer eskatuko zeniekete?

- ❖ Etorkizunari begira, nola uste duzue joango dela elkartea? (Programa eta zerbitzu gehiago izango ditu, gehiago hedatuko da, interbentzio mota hauen baliagarritasuna eta zilegitasuna handituko da, ...)

Bukatzeko zuen denbora eta laguntzagatik eskerrik asko laguntzagatik.

Gure Sustraiak elkarrizketaren gidoia

Hasteko, elkartearen sorrerari buruz ...

- Noiz eta nola sortu zen elkartea?
- Zeintzuk izan ziren elkartea sortzeko arrazoiak edo zerk bultzatu zizuen?
- Nola aldatu edo garatu da elkartea sortu zenetik?
